

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 25a / 590. zenbakia

**EGUZKIA KANPOAN,**  
UDAKO KANPAINA HASI DA IGERILEKUAN  
**BAINUA BARRUAN**



**JAIK: SAN PEDRO ETA SAN MARTZIALAK/4 • ARKU TIROKETA: MARKINA, ESPAINIAKO TXAPELDUN/8**

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 25**  
ZABALA. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

**ZAPATUA, 26**  
GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05

**DOMEKA, 27**  
GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05

**ASTELEHENA, 28**  
ESTELLA. Matxiategi 5... 943 76 19 63

**MARTITZENA, 29**  
MOZOS. Iparragirre 2... 943 76 12 15

**EGUAZTENA, 30**  
CAMACHO. Oxirondo 4... 943 76 11 74

**EGUENA, 1**  
ZABALA. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Anbulatorioa (txanda) ... 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa ... 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa ... 943 76 62 46

Ertzaintza ... 943 53 47 20

Osasun etxea ... 943 76 24 40

Asepeyo ... 943 76 16 43

Pakea ... 943 76 13 49

Angiozako medikua ... 943 78 90 27

Antzuolako medikua ... 943 76 62 23

Odol emaleak ... 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak ... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**

Taxiak ... 943 76 19 50

**UDALA**

Bergarako Udaletxea ... 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea ... 943 76 62 46

Udal Artxiboa ... 943 77 91 32

Igerilekuak ... 943 76 20 51

Kultura etxea ... 943 77 91 58

Liburutegia ... 943 77 91 62

Kirroldegia ... 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza ... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**

Epaitegia ... 943 76 14 92

Erregistroa ... 943 76 13 15

Jardun ... 943 76 36 61

Idolaz ... 943 76 65 08

Erretiratuaren etxea. Bergara ... 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuaren elk. ... 943 76 62 71

Postetxea ... 943 76 26 85

Bedelkar ... 943 76 04 68

Akulu AEK ... 943 76 05 18

Udal Euskaltegia ... 943 76 44 53

Bergarako notariotza ... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>San Pedro</b> Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	<b>Angiozar</b> Domekak: 11:00. <b>Moja Zaharrak</b> Lanegunak: 08:00. <b>Mizpirualde</b> Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
<b>Santa Marina</b> Domekak: 10:30, 13:00. Zapatuak: 19:00.	<b>Antzuola</b> Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
<b>Sierbak</b> Lanegunak: 19:30.	<b>Uzarraga</b> Domekak: 10:00.
<b>Osintxu</b> Domekak: 12:00.	<b>Elgeta</b> Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.
<b>Elosu</b> Domekak: 11:00.	<b>URTE-MEZAK</b>
<b>Ubera</b> Domekak: 10:30.	<b>Santa Marina</b> Hileko 2. domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
<b>San Juan</b> Domekak: 11:00.	<b>San Pedro</b> Hileko 3. domekan, 09:30ean eta 12:30ean.
<b>Elorregi</b> Domekak: 10:30.	
<b>Labegarieta</b> Domekak: 11:00.	
<b>San Lorenzo</b> Zapatuak: 20:00.	

**OHARRAK**

**ODOL ATERATZEAK UZTAILEAN**

Bergarako Odol Emaileen Elkartek aditzera eman duenez, uztailean bi odol ateratze izango dira, hilaren 7an eta 21ean hain zuzen ere. Ohikoa denez, Seminarioko lokalean egingo dituzte, 18:30ean.

**ARANZADIREN ZOZKETA**

Aranzadi Ikastolaren zozketan 3.213 izan da saritutako zenbakia. Txartelaren jabeak Donostiako Londres hotolean bi gaueko egonaldia (bi lagunendako) eta La Perlan talasoterapia saioa irabazi ditu.

**JARDUNEN AGENDA**

**OLINPIADEN AZKEN JARDUNALDIA ZAPATUAN**

Jardun elkarteak antolatuta, sendabelarrak jasotzeko irteera egingo da bihar, ekainak 26. Autobus geltokitik aterako dira, 09:30ean. Edozein argibidetarako 943 76 08 19 zenbakira deitu.

**KANTU LIBURUXKAK BI EUROTAN SALGAI**

Euskal kantuen liburuxkak kaleratu ditu Jardunek. Liburuxkak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, bi euroren truke.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Agirre eta Murua, Euskadiko txapeldun**

Edu Muruamendiaraz eta Amaia Agirre bergarar dantzariak Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketa irabazi zuten 1994ko ekainaren 19an, Seguran. Txapelketaren 17. ekitaldian hamasei bikote izan ziren lehian. Aurreko urtean ere txapeldun geratu ziren Amaia eta Edu.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"San Juan-su"*



San Juan bezpera gauean egiten den sua.  
— Urtero eitten die gurian san juan suak.

GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Astelehena, 21 **9 °C**

**MAXIMOA**  
Martitzena, 22 **32 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)**  
**17,3 L**


	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	28 °C	10 °C	- l/m²
Eguena, 17	31 °C	10 °C	- l/m²
Egubakoitza, 18	26 °C	10 °C	14 l/m²
Zapatua, 19	23 °C	13 °C	0,4 l/m²
Domeka, 20	20 °C	14 °C	0,1 l/m²
Astelehena, 21	26 °C	9 °C	2,8 l/m²
Martitzena, 22	32 °C	16 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**GOGORATZEKOA**

**SAN MARTZIAL EGUNA**

San Martzial eguna ospatuko dute eguaztenean, ekainaren 30ean. Ohiturari jarraituz, letania errezatuz San Martzialera igoera egingo da eguaztenean, 07:30ean Santa Marinatik irtenda. San Martzialera heldu ondoren, meza izango da hango ermitan, 08:00etan. Mezaren ondoren, San Joxepe erretiratuaren elkarrekoek prestatutako txokolata banatuko dute. Joan zen urtean 300 lagun inguruk hartu zuten parte igoeran.



**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA



Labegarieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

**REMENTERIA**  
Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

**SANTOS**



Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer moduz ekaineko azterketak?



**LANDER OSA**  
9 urte



**MARKEL MANUEL**  
9 urte



**JON SARASKETA**  
10 urte



**OLATZ UGALDE**  
10 urte



**MAIDER CABO**  
9 urte



**MAIDER SANTORCUATO**  
7 urte

Laugarren maila egin dut, eta azterketak ondo atera zaizkit, dena gainditu dut. Ikasgaiarik gustukoena Ingerunea izan da. Oporretan? Abuztuan amaren herrira joango gara, Altzora.

Ondo egin ditut ekaineko azterketak. Errazena Matematikakoa izan da. Zailena, berriz, Inguruneakoa. Udan Zarautzera joango gara, badaukat hondartzan ibiltzeko gogoia.

Laugarren maila egin dut, eta azterketak ondo joan zaizkit. Zailena Matematikakoa eta errazena Euskarakoa izan dira. Udan Santanderren eta Bergaran ibiliko naiz.

Bosgarren maila bukatu dut, eta azterketak ondo egin ditut. Dena gainditu dut. Lengoaia izan da zailena. Orain gustura oporretan. Udan oraindik ez dakit nora joango garen.

Azterketa guztiak gainditu ditut, eta pozik nago. Nire ustez zailena Gimnasia izan da eta errazena, Euskara. Udan? Igerilekura, hondartzara, jolasean... Gustura ibiltzen gara.

Bigarren mailan ez dugu azterketarik egiten, baina ikasturtea ondo joan zait. Orain, udan, ingelesa ikasteko asmoa daukat, eta abuztuan Tarragonara joango naiz, gurasoekin.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK KIROLDEGIKO ATZEALDEA** Labegaraietako auzotar batek deitu zigun aurreko astean, kiroldegiko atzealdearen egoera salatzen. Hark adierazitakoaren arabera, leku hori zabortege bihurtzen ari da, eta Udalak ere badauka zerikusia horretan. Antza, Udaleko langileek ere han lagatzen dituzte era guztietako materiala. Udalarri beharrezko neurriak hartzeko eskatu nahi dio. /E.M.

## ETABARRUAN...

ASTEKO /4	KIROLA /9	KULTURA /13
<b>San Pedro eta San Martzialak</b> San Martzial eguna ospatuko da eguaztenez. Hainbat ekitaldi izango dira egunotan.	<b>Jone Larrañaga Xiba taldean</b> Euskal joko eta jolas tradizionalak pizteko helburua duen Xiba taldean dabil Jone Larrañaga.	<b>Ahozko ondarea</b> Bergara aldeko ahozko ondarea jasotzeko eta antolatzeko lana egiten ari da Badihardugu.

## ASTEKODATUA

# 1.200

### ERABILTZAILE IRIZAR JAUREGIKO KZ GUNEAN

Irizar jauregi KZ Gunea 1.200 erabiltzaile inguru ditu. KZ Gunea 2002ko azaroan zabaldu zuten eta gero eta jende gehiago hurbiltzen da zentrorra. Uztaile-rako ikastaroak iragarri dituzte.

## BESTEKEESANA

**Bergarako UNEDeko zentroan ia-ia ikasle bakoitzaren azterketa klinikoa egiten dugula esan daiteke.**

**Horren arabera, ikasle bakoitzari eskaintza ezberdin bat egiten diogu, ikasketak eta familia tartekatzen aukera izan dezan. Zentroak malgutasun osoa eskaintzen du zentzu horretan. Gaur egun etxeko andreak edota bigarren karrera egin nahi duen jendea dago gure ikasleriaren artean"**  
**VICENTE HUIZI / UNEDeko idazkaria 'El Diario Vasco' / 02-06-16**

**"Dantza tradizionalaren eta gaur egungoaren arteko uztarketa egiten dugu Aukeran taldean. Jendea ohitzen ari da horrelako ikuskizunak ikustera; gure emanaldietan ere harrera ona jaso dugu ikusleen aldetik"**  
**EDU MURUAMENDIARAZ / Dantzaria Euskal Telebista / 02-06-17**

## BERAIEKDIÑO / Andres Osa Sakona



### Txorlitoak

**E**zker abertzaleak marka guztiak ondu ditu. Legez kanporatzearen ondorioz hauteskundeetan ezin aurkeztu, ez mitinik, ez irratirik, ez telebistarak ez... ezertarako eskubiderik ez du. Baina oztopo guztiak gaindituz hauteskunde gauean protagonismo nagusia berea izan zen. Zergatik ote? Alderdi guztiek jaitsi dira HZk ordezkatzeko duen sektorea izan ezik. Norberaren porrota justifikatu nahirik buru argi batzuk esan dute "hor militantzia mugitzen da, ez dute Europa izan helburutzat beraien bizi iraupena baizik, horregatik mantendu dira". Kontxo! Aralarri botoa eman dionak Europan sartzeko asmoarekin eman al dio ba? Gauza bat gelditu da garbi: Egoerari irtenbidea aurkitzeko ezker abertzalearekin derrigorrez hitz egin behar da, modu batera edo bestera eta lehen bai lehen egiten bada, hobe.

Josu Jon Imazek zera esan

du: "ETArik gabe ezker abertzalearekin akordioak lor daitezke". ETArik gabe ez dakit baina maila kaxkarreko politikoekin bai ezin dela gauza onik lortu sufrimendua ez bada. Aitzakia merkeak. Imaz jaunak, Xabier Arzallusi kasu gutxi egin dio. Honek, HZren legez kanporatzea dela eta oraintsu egin zituen adierazpenak esanguratsuak dira: "Ezker abertzaleak eskubide osoa du ETA ez gaitzesteko eta nahi duena pentsatzeko".

Baina orain Arzallusek ez du aginpiderik. Zeharo

baztertu, ahotsik gabe laga eta infernuko deabruaren pareko jarri dute. 25 urte alderdiaren gidari izan eta orain hau! Kanposantuko lurra pertsonak baino berotasun gehiago emango duen itxaropena izan ezazu, Xabier.

Izan ere, Imazen tankerako "abertzale modernoak eta buru argiak" nola hartuko du ba aintzakotzat maisu zaharraren aholkua! Txorlitoak!

**"Oztopo guztiak gaindituz, hauteskunde gauean protagonismoa nagusia izan zuen HZk"**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Usua Agirre  
Irati Agirrezaldegi  
Jon Bereizibar  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizibar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zehitzuzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**JAIK**/ San Martzialgo erromeriari begira Udalak mahaiak alokatuko ditu; epea martitzenera arte dago zabalik

# San Pedro jaietako kontzertua domekan eta San Martzialera igoera eguaztenean

EDU MENDIBIL

San Pedro eta San Martzial jaietako ekitaldiak hasi dira dagoeneko. Datozen egunotarako hainbat ekitaldi iragarri ditu Udalak. Bestalde, San Martzialgo erromeriarako mahaiak alokatzeko epea martitzenera arte izango da zabalik.

Uztailaren 4ko San Martzialgo erromeriarara begira, Udalak mahaiak alokatuko ditu. Mahai bakoitzaren alokairuak 20 euro balio du eta eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza ordaindu beharko du. Mahaiak eta aulkiak ekainaren 29ra arte alokatu ahal izango dira, kultura etxean, 16:00etatik 19:00etara bitartean. Azken urteotan moduan, mahaiak eta aulkiak uztailaren 3an banatuko ditu Udalak, uztailaren 3an, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialgo kantina ondoan. Fidantza, berriz, uztailaren 5etik 9ra bitartean itzuliko zaio eskatzaile bakoitzari.

Fidantzarekin batera, aurtengo nobedadeetako bat zera izango da: mahaiak eta aulkiak

erromeria egunean bertan itzuli beharko dira, 19:00etatik 21:00etara hain zuzen ere. Materiala bueltatzen ez duenak fidantza galduko du.

## BANDAREN KONTZERTUA DOMEKAN

Udal Musika Bandak San Pedro jaietako kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 27an, Espoioian, 12:30ean. Aurretik, kalejira egingo dute Bandako kideek, 11:30ean. Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendutako Bandak zapi pieza joko ditu domekako emanaldian.

## LETANIA EGUAZTENEAN

Ohikoa denez, eguaztenean, San Martzial egunean, letania errezatuz igoera egingo da San Martzialera, 07:30ean Santa Marinaran hasita. Ondoren, 08:00etan, meza izango da ermitan eta meza ostean San Joxepe elkartekoek prestatutako txokolatea banatuko da.

Bestalde, datorren egubakoitzean, uztailaren 2an, Bergarako Orfeoak eta Musika Eskolako soka taldeak eta kantu ikasleek ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute Mariaren Lagundiko elizan, 20:30ean.



Udalak agindutako orduan mahaiak eta aulkiak bueltatzen ez dituztenek jarritako fidantza galduko dute.

## KZGunean doaneko informatika ikastaroak izango dira uztailan

E.M.

KZGuneak hainbat ikastaro iragarri ditu uztailerako. Alde batek informatika oinarrizko ikastaroa eskainiko da, nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko. 20 orduko ikastaroa izango da eta interesatuek lau ordutegi izango dituzte aukeran: 08:00etatik 10:00etara, 10:00etatik 12:00etara, 12:00etatik 14:00etara eta 14:00etatik 16:00etara. Era berean, Kutxanet izeneko ikastaroa egiteko aukera egongo da.

Internet bidez banketxeko kontu laburpenak, mugimenduak eta abar zelan kontsultatu erakutsiko da. Lau orduko ikastaroa izango da, 08:00etatik 10:00etara. Azkenik, nobedade moduan, irudi digitalen tratamenduaren gaineko 8 orduko ikastaroa egongo da. Argazkigintza digitalean zein irudien hobekuntzarako tratamenduetan interesaturik daudenei bereziki zuzenduta dago ikastaroa. Ikastaroa egiteko doaneko GIMP softwarea aukeratu dute KZGuneako arduradunek.

## UZTAILEKO ORDUTEGIA

KZGunea 2002ko azaroan ireki zuten, Irizar jauregiko lehen pisuan. Gaur egun 1.200 erabiltzaile ditu KZGuneak. 20 ordenagailu daude eta zerbitzua doanekoa da.

IT txartela (Informazioaren Teknologietan oinarrizko gaitasuna ziurtatzeko sistema) eskuratzeko aukera dago KZGunean. Uztailan 08:00etatik 16:00etara izango da zabalik. Edozein argibidetarako 943 76 73 24 telefono zenbakira jo dezakezue.



KZGunean doaneko zerbitzua eskaintzen da 2002ko azaroa ezker.

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

## ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

## disdira

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

## ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

LANA/ Maiatza ezker mobilizazioak egin dituzte Lendingeko langileek, lan baldintzen hobekuntza aldarrikatzeko

# Mizpirualde egoitzan azpikontratutako langileek akordioa lortu dute enpresarekin

EDU MENDIBIL

Maiatzetik protesta ekitaldientan jardun ondoren, Mizpirualde Egoitzan azpikontratutako langileek Lending SLrekin hitzarmena sinatu zuten egubakoitzean, ekainaren 18an. Langileen ordezkariak pozik azaldu dira lortutako akordioarekin.

Gogoratuko duzue, maiatzaren hasieran mobilizazioei ekin zieten Mizpirualden lanean diharduten Lending SLko 54 langileek. Besteak beste, auto karabanak eta elkarretaratzeak egin dituzte azken asteotan. Langileak ordezkatzeko ELA eta LAB sindikatuak pozik azaldu dira, langileen aldarrikapenei aurre egiten dielako hitzarmen berriak. Hainbat astetan negoziazioa eten da zegoela zirudiena, baina azkenean akordioa lortu da.

## 35 ORDUKO LAN ASTEA 2005EAN

Esan bezala, enpresako arduradunekin hainbat bilera izan ostean, langileen ordezkariak eta Lending SLko arduradunek hitzarmena sinatu zuten aurreko egubakoitzean. Sinatu berri duten

akordioaren arabera, lan baldintzen ezberdintasunak saihesteko, langile guztiak hitzarmen bakarra izango dute aurrerantzean. Bost kolektibo ezberdinen soldata jasotzen du hitzarmenak. Soldataren igoera, batez beste, %10,3koa izan da. Hain zuzen ere, gutxieneko soldata Garbitasunaren Gipuzkoako Hitzarmenak ezartzen duena izatea aldarrikatzen zuten langileek, gainerako kategoriei dagozkien igoerak aplikatuz. Egutegiari dagokionez, 2004 urterako 1.624 lan ordu eta 2005erako, berriz, 1.592 lan ordu (35 ordu astean) hitzartu dituzte sindikatuak. Era berean, baje kasuan hobekuntzak lortu dituzte: gaixotasun arruntetan, lehenbiziko baja %90 ordainduko da lehen egunetik eta bigarren baja hartzen denean, %80.

## ORDAINSARIA GABONETAN

Azkenik, abenduaren 25ean eta urtarrilaren lehen ordainsari berezia jasoko dute Lendingeko langileek, eguneko soldata eta plusaz gain. Mizpirualde egoitzan lanean dihardutenekin euskaren normalizazio plan bat aurrera eramateko konpromisoa ere hartu du Lendingek.



Lendingeko langileek egindako elkarretaratze bateko irudia.

ARTIBOIA



## 1927an jaiotako bergararrak

Kintada ugari izan dira azken asteotan Bergaran. 1927an jaiotakoena izan da kintadarik beterranoenetakoa. Aurten 77 urte egiten dituzten bergararrak joan den maiatzaren 22an elkartu ziren, aspaldiko ohiturari eutsiz. Hogeita hiru lagun izan ziren Zumelaga jatetxean egindako bazkarian, eta umore ona izan zen nagusi. Argazkian ikusten denez, sasoi betean dira. Segi horrela, ba!

## Justo Garate aztergai UNEDeko ikastaro baten

E.M.

*Justo Garate o la integración de saberes: una mirada antropológica (1900-1994)* izenburuko ikastaroa iragarri du UNED ikastetxeak datorren egubakoitzerako, uztailak 2. Udako ikastaroen eskaintzaren barruan, Bergarako zentroak Garateren oroimenezko ikastaroa antolatu du, mediku ospetsuaren heriotzaren 10. urteurrenean hain justu. Garate 1994ko uztailaren 2an hil zen, Argentinako Mendoza hirian.

Datorren egubakoitzeko saioan Felix Leturia UNEDeko irakasleak, Begoña Sarrionandia EHUKO irakasleak eta Jose Maria Urkia EAEko kideak hartuko dute parte. Bergarako udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan izango da ikastaroa, 16:30etik 20:00etara. Hizlariak Justo Garaterekin askotariko alderdiak aztertuko dituzte eta jarraian mahai-ingurua izango da.

Izenematea doan da. Hala, interesatuek UNEDera (943 76 90 33) jo dezakete argibide eske.



**EL CARMEN**  
GARBIKETA  
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua  
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak  
Moketa garbiketak  
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39  
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

# SANCHEZ

## Ile apaindegia

**OHARRA:**  
Sanchez ile apaindegia  
ekainaren 29an eta 30ean  
itxita egongo da berritze lanengatik

Barkatu eragozpenak

# Udako kanpaina hasi da Agorrosingo igerilekuan

E.M.

Udako kanpainari hasiera eman zioten zapatuan. Bigarren urtez jarraian, kanpoko igerileku txikia erabiltzarekin konformatu behar dute Kirol Zerbitzuko bazkideek. Era berean, eguzkia hartzeko aukera ere izango da igerilekuaren ondoko berdegunean. Uztailean, aste barruan 07:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 09:00etatik 21:00etara izango da zabalik igerilekua. Abuztuan, berriz, 09:00etatik 21:00etara irekiko dute. Udako kanpainak, hasiera baten, irailaren 12ra arte iraungo du. Uztailean igeriketa ikastaroak izango dira. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

## SARREREN PREZIOA

Kirol Zerbitzuko bazkide ez direnek ondoko prezioak izan dituzte igerilekura sartzeko: 18 urte-tik beherakoendako sarrerak 2,55 euro balio du eta 18 urtetik gorakoendako, berriz, 3,75 eurotan salduko dituzte.

Bestalde, ohikoa denez, eguzkia hartzeko hamakak alokatuko dituzte igerilekuan: goizean, 15:00ak arte, hamakaren alokairuak 0,75 euro balio du eta 15:00etatik aurrera, 1,35 euro.



Martitzeneko eguraldi ona aprobetxatuz, jende dezente joan zen igerilekura.

## LABUR

### Maite Lazkano eta Asier Ena bigarren Euskal Herriko Dantza Askatuko Txapelketan

Maite Lazkano eta Asier Ena bigarren geratu ziren Euskal Herriko Dantza Askatuko Txapelketan, domekan, Seguran. Aitzol Ena eta Miren Illarramendi hirugarren; Josune Fernandez eta Alex Torre zazpigarren eta Janire Urbieta-Azurmendi 8. sailkatu ziren.

### Xipizaro ludotekak antolatutako udalekuak egunean, uztailean leian, hasiko dira

Xipizaro ludotekak antolatutako udalekuak datorren egunean, uztailean leian, hasiko dira. Hiru eta 14 urte bitartekoek 10:00etatik 13:00etara izango dute ordutegia eta 2 urtekoek, 10:30etik 12:30era, ludoteketan bertan. Argibideak Xipizaron, 943 76 23 76 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

### Sendabelarrak jasotzeko ibilaldia egingo dute bihar, zapatua, Jardunek antolatuta

Jardun elkarteak antolatuta, sendabelarrak jasotzeko irteera egingo dute bihar, zapatua. Hiru ordu inguruko irteera izango da, eta parte hartzeko interesa dutenek Jardunek Errotalde jauregian duen bulegora jo dezakete. Autobus geltokitik aterako dira, 09:30ean. Izenemateak sei euro balio du. Edozein argibidetarako Jardunera, 943 76 08 19 telefonora dei dezakezue.

### San Joxepe elkarteak irteera egingo dute Zarautzera eta Zumaiara, uztailean 7an

San Joxepe elkarteak irteera iragarri du uztailean 7rako. Egun horretan Zarautzera, Santa Barbarara, eta Zumaiara joango dira San Joxepeko kideak. Bazkaria Zumaiara egingo dute, eta 19:00etan itzuliko dira Bergarara.

Izenematea erretiratuen egoitzan egin daiteke. Edozein argibidetarako bertara jo dezakezue, 943 76 30 09 zenbakira.




Jon Gantxegi, Gipuzkoako txapelketa kumite modalitatean, bere mailan. Julen Iñurrieta, Gipuzkoako txapelketa kumite modalitatean eta hirugarrena Euskadiko txapelketan, modalitate berean.

Debagoieneko klubaren arteko II. Kyokushin Txapelketa. ZORIONAK, aurtengo denboraldian lortutako emaitzengatik.

### 2004ko irailtik 2005eko uztailean arteko programazioaren aurrerapena

Spinninga, intentsitate handia (aerobikoa)  
Spinninga, intentsitate ertaina (aerobikoa)  
Aerobic-Stepa (aerobikoa)  
Body-Gima (aero-anaerobikoa)  
Sasoian egotekoa (aero-anaerobikoa)  
Tai-Chia

Sasoian egotekoa, nagusiendako (65 urtetik aurrera)  
Helduendako karatea (borroka artea)  
Haur eta gazteendako karatea  
Capoeira: Brasildar artea (harmonia, indarra, malgutasuna, mugimenduen koordinazioa eta bizkortasuna)  
Defentsa pertsonala



KIROL ELKARTEA

*Giartzu*

Ordutegia: 07:00etatik 22:00etara  
(Martitzenetan eta eguenetan 13:00etatik 14:30era itxi egiten dugu)

MINGAINARITIRAKA



Libe  
Txintxurreta

KZ GUNeko ARDURADUNA

Filosofia eta Informatika ikasketak egin zituen Libek (35 urte). Irizar jauregian KZGunea zabaldu zutenetik bertako arduraduna da. Aurretik Play & Say hizkuntza akademian jardun zuen, ingeleseko eskolak ematen.

Laneko gauzarik onena? Eta txarrena?

Gauzak nire erara antolatzeko askatasuna. Txarrena, ordutegia.

Internet-zalea zara? Zertarako erabiltzen duzu?

Bai. Egunkaria irakurtzeko, erosketak egiteko eta posta elektronikoa erabiltzeko erabiltzen dut.

Eta Interneten erositako azken gauza ?

Kamera digital bat. Horrelakoak prezio hobean egoten dira sarean.

Etxean baduzu ordenagailurik?

Ordenagailua bai, Internet ez.

Interneten topatu duzun gauzarik bitxiena?

Nazkagarriena argazki porno bat ume batekin. Oilo-larrua jarri zitzaidan.

Zein adinetako jendea egoten da KZGunean?

Nabigatzen gazte jendea ibiltzen da. Ikastaroetan emakumeak batez ere, 30 urtetik gorakoak.

Zure lanerako beharrezko dohaina?

Harremanetarako gaitasuna-edo...

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Irakurri, bizikletan ibili, noizbehinka parrandaxoren bat egin...

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

La plaza de Urbina (Andoni Cabello)/Titus/Lenny Kravitz.

Parranda-zalea zara? Parrandarako toki bat?

Gero eta gutxiago. Bilbo parrandarako toki ona da.

Udako gauzarik onena eta txarrena?

Onena, oporrak. Txarrena, bero handiko egunak.

Udan hondartza ala igerilekua nahiago?

Ez bata eta ez bestea. Nahiago dut paseatu, toki berriak ezagutu.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Nire buruarekin ondo egoteari.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Zintzotasuna.

Loterian milioi bat euro irabaztekotan, zer?

Lana egiteke bizi izaten saiatuko nintzateke.

Zer egingo duzu udako oporretan?

Zugarramurdira eta Fiteroko bainuetxera joango gara.

KANPOTARRAK BERGARAN

LEONEL MOYA

33 URTE / VENEZUELARRA / 2002KO MAIATZA EZKERO BERGARAN BIZI DA

“Caracastik etorrita, hemengo lasaitasuna eta segurtasuna baloratzekoak dira”

EDU MENDIBIL

Dagoeneko bi urte egin ditu gure artean Leonel. Venezuelako iparkialdean dagoen Carupano hirikoa da Leo, baina Bergarara etorri baino lehen Caracasen bizi izan zen. Hamahiru urte eman zituen Venezuelako hiriburuan, eta Zuzenbide ikasketak egin zituen han. Caracasen abokatu lanetan zebilela ezagutu zuen Venezuelara lanera joandako Aitziber neskalaguna: “Toki-Eder izena zuen erakin baten lan egiten nuen, eta Aitziber ezagutu arte ez nekien zer demontre esan nahi zuen”.

Aitziberrek eta Leok Bergarara bueltatzea erabaki zuten, eta hemengo bizimodura ondo moldatu dela diosku Leok: “Gustukoa dut hemengo bizimodua:

“Negua oso gogorra egiten zait. Hemengo euria eta hotza jasatea gogorra egiten da”

txikiteoa, horrenbeste urtean mantendu diren ohiturak, baita emakumeak ere... Jendeak ondo hartu nau, eta hasieran nahiko gogorra egin zitzaidan arren, poliki-poliki ohitzen noa”.

Esan bezala, abokatua da Leo. Hala ere, titulua homologatzea ez da horren erraza: “Izapide guztiak egiteko eta ikasketak eguneratzeko pare bat urte behar dira, eta ez nago batere motiba-

tuta, hutsetik hastea bezala izango litzatekeelako”. Gipuzkoa osoan dabil lanean, antenak jartzen, eta ia egunero autoan ibiltzeak txoko guztiak ezagutzeko aukera ematen dio: “Leku ederrak daude hemen”. Uda datorrela eta, gusturago dabil: “Negua oso gogorra egiten zait, baina udaberrian eguraldi ona hasten denez, primeran ibiltzen naiz. Venezuelako klimara ohituta, euria eta hotza jasatea gogorra egiten da batzuetan”.

Leo baino lehen bere bi ahizpa (zortzi anai-arreba dira) etorri ziren Euskal Herrira, Donostiara. Eurekin askotan elkartzen da. Herriminari duen galdetu diogu: “Nire jendearekin harremana eta Choroniko hondartza sumatzen ditut faltan. Bestalde, aste barruan gehiago irteten gara Venezuelara, lana bukatutakoan eta. Hemen jendea aste bukaeran bakarrik ateratzen da. Hori bai, Caracas bezalako hiri batetik etorrita, hemengo lasaitasuna eta segurtasuna baloratzekoak dira”. Hain zuzen ere, orain dela urte eta erdi egon zen azken aldiz Leo jaioterrian.

VENEZUELAKO EGOERA

Azken urteotan egoera nahasia bizi du Venezuelak. Chavez presidentearen aldekoa da Leo: “Chavez en aurretik boterean egon zirenak oposizioan daude orain eta boterea berreskuratu nahi dute. Galera ekonomiko handiak eragin zituzten bere garaian eta haiek baino nahiago dut agintean Chavez egotea. Aldaketa prozesuan dago gure herria”. Abuztuaren 15erako erreferenduma deituta dago Venezuelara, eta Chavez en aldeko iritzia azalduko duela esan digu Leok. Bilboko kontsulatuaren bitartez, bozketan parte hartu ahal izango du.

Bien bitartean, erosi berri duten etxean lanean dihardu Leok. Aste bukaeran, berriz, urtebetetzea ospatzeko gogoz dabil. Izan ere, martitzenean, hilaren 22an, 33 urte egin zituen. Beraz, zorionak!




EDU MENDIBIL

- L Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- L Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



**ARRAÑAGA**

A U T O E S K O L A

ARKU TIROKETA

## Fernando Markina irabazle izan da Espainiako arku tiroketa txapelketan

Euskadiko marka haustea lortu zuen domekako jardunaldian, 1.346 punturekin

JON BEREZIBAR

Domeka ezker Espainiako arku tiroketa txapelketan da Fernando Markina. Laugarren aldiz lortu du kopa, eta, horrekin batera, Euskadiko marka berria ezarri du. Emaitza berri horrekin oso pozik agertu da eta oraindik "ametsetan" dagoela adierazi du.

Joan den asteburuan jokatu zen Madrilen Espainiako arku tiroketa txapelketaren finala. Beterano mailan eta poleadunen esparruan, laugarren aldiz txapelketan izan zen Fernando Markina. Guztira Estatu osoko 42 arkularik hartu zuen parte.

Aurtengoarekin laugarren aldiz izan da irabazle, eta Euskadiko marka berria ezarri zuen domekan: 1.346 puntu, hain zuzen ere. Horrekin, Espainiako errekorretik bost puntura geratzea lortu zuen. Marka berriarekin oso pozik agertu da Fernando, nahiz eta zortea ez zuen alde izan eta haizeak traba handiak jarri zizkion. Izan ere, norberaren prestakuntzaz gain zortea ere zeresan handia dauka kirol horretan, haizeak batez ere. Hori gutxi balitz, gezi bat izorratu, eta zapi bat puntu galarazi zion.

### LEHIA GOGORRA

Azkenean garaile irten zen arren, maila oso altua izan zuen txapelketak. Zapatuko jardunaldian bigarren geratu zen, zorte txa-



Fernando Markina da Espainiako txapelketaren irabazlea.

rraren ondorioz. Domekakoa izan zen bere eguna, "zoragarria" bere hitzetan, gezi bat bakarrik huts egitea lortu baitzuen.

Aurtengo txapelketarako ere gogor prestatu da Fernando, egunero bi ordu entrenatuz, eta hori, azkenean, nabaritu egin da emai-

*"Marka berri honekin oraindik ere ametsetan bezalago, sinetsi ezinik"*

tzetan. Izan ere, beterano mailan lehiatu arren, maila handia dago arku tiroketan.

Kirol oso ezaguna ez izan arren, jende guztia probatzera animatu nahi du Fernando Markinak, "kirol oso polita baita". Asteburuko txapelketan, esaterako, 80 urteko lagun batek hartu zuen parte-eta. Adin kontua ez da, beraz. Fernando orain zapi bat urte hasi zen arkuarekin eta ordutik hona dago federatuta. Betidanik arma eta tiroketa-aren zale izan den arren, nagusitan ezagutu du kirol hau Udaleko ikastaro baten bitartez. Gezi Bat Bergarako arkulari taldeko kide da.

## Muguruza-Samaniego bikoteak Debarroko txapelketako finalerako sailkatzea lortu zuen

J.B.

Debarroko pilota txapelketako finalerdietako itzulerako partidak jokatu ziren martitzen eta eguaztenean. Nagusiek sailkatzea lortu zuten arren gazteek partida zaila izan zuten eskoriatzarren aurka.

Martitzenean Elgoibarren jokatu zuten nagusiek, eta gazteek Eskoriatzan izan zuten bueltako partidua. Muguruzak eta Samaniegok osatutako bikoteak erraz lortu zuen partida irabaztea. Buel-tako partida honetan Samaniegok jokatu zuen Gutierrezen ordez. Aldaketak aldaketa, erraz irabazi zioten Elgoibarko taldeari, 22-15. Irabazteko esperantzekin joan ziren Elgoibarrera martitzenean, eta finalera heltzea lortu zuten bergararren.

Debarroko finalean Aretxabaletako Errasti anaiak aurrean izango dituzte bihar, zapatua, Eskoriatzan, 17:00etan hasiko den jaialdian.



Finalerako sailkatzea lortu du Muguruzak Samaniegorekin batera.

### LAUGARREN POSTUAREN BILA

Gazteei dagokienez, Muguruzak eta Azurmendik 22-12 galdu zuten Eskoriatzan. Ondo hasi zuten txapelketa bergarrek, baina bukaera aldera gauzak okertu egin zaizkie. Izan ere, Eskoriatzakoak bailarako talderik indar-

tsuena da, oraindik ez baitute partidurik galdu. Laugarren postua lortzea da bergararren helburua.

Bestalde, bihar, zapatua, infantil mailako Udaberri Txapelketako partidua izango dira Udal Pilotalekuan, 13:30ean.

## Mexikoko nesken eskubaloi talde onena bisitan Bergaran

J.B.

Bergarako eskubaloi taldeak gonbidatuta, Mexikoko nesken eskubaloi talde bat etorriko da bisitan datorren astean. Bertako nesken taldearekin eta Oñatiko zein Elgoibarkoekin lagun arteko partidua jokatuko dituzte.

Mexiko iparraldeko Nuevo Leon eskualdekoak dira bisitan datozen 20 jokalariek. Asteburuan dira etortzekoak eta astean zehar bertako taldeekin egingo dituzte partidua. Domekan Bergarako kadete eta gazte mailako taldeek mexikarren aurka neurtuko dituzte indarrak Labe-garrietako kiroldegian, 17:00etatik aurrera.

Astelehenean Elgoibarrera joango dira Bergarako taldearekin batera hirukoa jokatzeko. Martitzenean Bergara zein inguruak ezagutzeko aukera izango dute. Eguaztenean, oster, Aloña

Mendi, Nuevo Leon eta Bergarako kadete mailako taldeek hiruko txapelketa jokatu dute Labe-garrietan eta jarraian, gazte mailan, oñatiarrak eta mexikarrak izango dira aurrez aurre. Partiduak 17:00etan hasiko dira.

Egonaldi horrekin emakumezkoen eskubaloiari bultzada eman nahi dio Bergarako taldeak. Bultzada eta elkarbizitza ere. Izan ere, mexikarrek Bergarako etxeetan igaroko dituzte egun hauek. Edu Orgaz entrenatzailearen ekimenez etorri dira Bergarara. Mexikarren entrenatzailea ezagutu zuen orain dela bi urte Madrilen, eta iaz izan zen Mexikon taldearekin. Mexikoko eskubaloi klubik onena da Nuevo Leongoa. Eskubaloi ligarik ez dagoen arren, han egiten diren olimpiada berezietan beti garaile iristen dira eta emakumezko talderik onena da bisitan etorriko den hau, hain zuzen ere.

## Emaitza onak Gipuzkoako igeriketa txapelketan

J.B.

Emaitza onak izan dituzte alebin eta infantil mailako igerilariak Gipuzkoako txapelketan. Ana Balentziagak, laugarren postua lortuta, Euskal Herriko txapelketan hartuko du parte.

Azkeneko bi asteburuetan egin dira txapelketak Ordizian eta Hernanin. Bergararren maila ona erakutsi zuten bai alebin zein infantiletan. Ana Balentziagak, infantilen taldekoak, Euskal Herriko txapelketan parte hartuko du egun hauetan.

Joan zen asteburuan jokatu zen infantilen Gipuzkoako txapelketa Hernanin. Bergararik bost neska hartu zuten parte: Ana Balentziaga, Elisa Kortabarria, Jone Amasorrain, Tania Meabe eta Amaia Arraiagok, hain zuzen ere. Bostek egin zuten lan bikaina, baina aipatzekoa da batez ere Anak lortutakoa. Estilo librean laugarren geratu eta gero, Euskal

Herriko txapelketara joango da. Gaur eta bihar jokatu dute txapelketa Tolosan, eta 100, 200 eta 400 libreak egingo ditu.

Bere taldekideei dagokienez, errelebutan egin zuten lanik onena, eta 7. eta 10. postuak lortu zituzten bi estilotan. Aipatzekoa da, era berean, Jone Amasorrain bosgarren iritsi zela 50 metroko bular estiloan. Elisa Kortabarria 13. postua lortu zuen 50 libreetan eta 12.a 100 libreetan.

### ALEBINAK ERE ONDO

Alebinak ere ondo moldatu ziren Ordizian jokatu zen txapelketan, orain dela bi aste bukaera, ekainaren 12an. Josu Mentxaka, Ander Franco eta Urki Ibarguren hartu zuten parte. Estiloei dagokienez, 100 tximeleta, 100 bizkar, 100 bular eta 100 librean lehiatu ziren. Parte hartu zuten Gipuzkoako 36 igerilarietatik 23. postua lortu zuen Josuk eta oso gertu ibili zen Ander. Urki 27. sailkatu zen. Lehenengo postuetan iritsi ez ziren arren, lan polita egin zuten.



Urki Ibarguren, Ander Franco, Josu Mentxaka eta Ander Barruso igerilariak.



JONE LARRAÑAGA/XIBA TALDEKO KIDEA

## "Harremanak lantzeko erabiltzen dugu lehiakortasuna; kirola beharrean, jolasa"

JON BEREZIBAR

Euskal joko eta jolas tradizionalak pizteko asmoarekin sortu zen Xiba taldea. Herri kirolak lantzeaz gain, euskara eta kultura uztartu nahi dituzte jolasen bitartez. Zapatuan jokatu zuten Euskal Herriko finala Tolosan.

Zertan datza Xiba proiektua?

Ikastolen Elkartearen laguntzarekin eta Ikaspilota ekimenaren bultzadarekin sortu zen proiektua. Xibarekin, bereziki, euskal jolas, joko eta kirolen topaketak antolatzen ditugu, joko tradizionalak berreskuratu eta indartzeko. Aurtengoa izan da Xibarekin topaketak antolatu ditugun lehen aldia, baina aurretik, pilota sustatzeko proiektuarekin ibili gara lanean, gehienbat hezkuntza formalaren eremuan. Esate baterako, euskal soinketa jardunaldiak antolatu izan ditugu. Euskal herrialde guztietan egin ditugu topaketak, eta oso aberasgarria izan da. Xibari dago-kionez, aisialdira bideratu nahi izan dugu gehienbat, 16 urtetik gorakoentzat batez ere.

Baina Xiba lehiaketa hutsa baino gehiago da, ezta?

Euskara eta kultura lirateke ardatzak, joko tradizionalekin lotura estua baitute. Izan ere, jolasa harremanak bideratzeko modu ezin hobea da eta honetaz baliatuz sexuen arteko parekotasuna ere lantzen saiatzen gara. Txapelketa da izatez, baina ez lehiaren ildotik, harremanak lantzeko erabiltzen dugu lehiakortasuna, hain zuzen ere. Horregatik guk ez diogu kirola deitzen, jolasa baizik. Gainera, ohiko joko ez gain, dantza eta toka lehiaketak antolatzen ditugu, ondo pasatzea baita gure asmoa, hori baita jolasa eta gure helburua.



ARTXIBOA

*"Euskara eta kultura lirateke ardatzak, joko tradizionalekin lotura estua baitute"*

Emakumeen parte-hartzea ere bultzatzen saiatzen zarete?

Bai, hori ere aipatzekoa da. Izan ere, kiroletan orokorrean

emakumeak ez dauka bere bidea oraindik eginda, eta horren aldeko apustua egiten dugu guk. Emakumeak asko dauka egiteko, baina garrantzitsuena gure bidea egitea da, gure izaeraren arabera, lehiaketa alde batera utzita, agian. Oraingoz, gure taldean neu naiz emakume bakarra, eta hori asko nabaritzen da. Xibaren topaketen hamabi partaidetako taldeetatik erdia emakumeak dira. Herri batzuetan zaila izaten da emakumeak aurkitzea, asko bilatu behar da, baina emaitza onak ematen ditu

eta saiatzen gara parekotasunarekin.

Begirune berarekin ikusten dira herri kirolak eta gai-nontzekoak?

Oraingoz ondo hartu gaituzte, jendea ondo pasatzeko asmoarekin baitator, jakin-min handiarekin. Herri kirolaren mundua nahiko ezaguna da, baina guk beste ikuspegi bat ematen diogu: harremanena hain zuzen ere. Horregatik gara berritzaileak. Gazteek ondo pasatzen dute gurekin, eta, alderdi horretatik, gure helburua bete egiten da. Aurten arte Lehen Hezkuntzakoekin egin dugu lan, eta oso erantzun ona jaso dugu. Ulertzekoa den moduan, herri txikietan ezagunagoak dira herri kirolak, eta, horregatik, maila hobea dago herrietan. Gainera, herrietako haurrek harreman hobeak izaten dituzte euren artean, lehiakortasun txikiagoa baitago.

Nola hasi zinen zu Xiban lanean?

Orain dela bi urte hasi nintzen talde horrekin lanean. Lagun baten bidez ezagutu nuen Xiba, eta asko gustatu zitzaidan proiektua. Elkarriketa egin eta berehala hasi nintzen lanean. Lan guztia taldean egiten dugu eta denok adosten ditugu gauzak, ez daukat betebeharrak zehatz bat. Nolabait azaltzarren, taldearen koordinatzailea naiz, baina denon artean banatzen dugu lana. Proiektu asko dauzkagu esku artean. Momentu honetan, hezkuntzan unitate didaktikoak txertatzen saiatzen ari gara Xibarekin ibiltzeaz gain. Oso gustura nabil. Benetan garrantzitsua deritzot geure lanari, eta apartekoak dira lankideak, oso talde berezia eta jatorra osatzen dugu. Joko tradizionalak berreskuratzearren alde egiten dugu lan, eta jendeak hori eskertu egiten duela uste dut, kultura eta euskarekin lotuta baitago.

TXIRRINDULARITZA

### Unai Arantzabal, seigarren Gipuzkoako Itzulian

Unai Arantzabal txirrindulari bergararra seigarren tokian sailkatu zen astelehenean Seguran amaitutako gazte mailako Gipuzkoako Itzulian.

Sumofic taldeko txirrindularia Egoitz Garcia irabazlearengandik (Sabeco) bi minutu eta 51 segundora sailkatu zen. Unai Arantzabal gaztea denboraldi bikaina egiten ari da aurten.

## IPINTZAKO TXAPELKETA

### PARTIDUAK

#### EGUBAKOITZA, 26 (SENIOR NESK.)

20:00: Baztangak - Potzu ta Zapaburuak  
20:00: Antzuola - Pentol's team  
21:00: Epa Gindis - Ou Pitxu ou!  
21:00: Ogizun - A Willy-Willy

#### ZAPATUA, 26 (SENIOR MUTILAK)

09:30: Gertokuak - Ezdakiu  
10:00: Mongitxarrak - Mongatxurak

#### ASTELEHENA, 28

17:45: 3. eta 4. postuak. Neskak. A maila  
18:30: Finala. Neskak. A maila  
19:30: (Finalerdiak) Lehenengo - Laugarrena  
20:30: (Finalerdiak) Bigarrena - Hirugarrena

#### MARTITZENA, 29 (SENIOR MUT.)

19:00: Bildurbarek Opel-Lam - Getokuak  
20:00: Komando Torrekoa - Mongitxarrak  
21:00: Txokokuak - La Juve

#### EGUAZTENA, 30 (SENIOR MUT.)

19:00: Gorriones - A ze flaxa - Guipuzcoana  
20:00: Ez dakiu - Fo-fo-fo  
21:00: Mongatxurak - Indar Gorri

#### EGUENA, 1 (SENIOR NESKAK)

20:00: Oi Pitxu oi! - Ogizun  
20:00: Pentol's team - Epa Gindis  
21:00: Potzu ta Zapaburuak - Antzuola  
21:00: Plaust - baztangak

#### EGUBAKOITZA, 2 (BETERANOAK)

18:45: 3. eta 4. postuetarako partidua  
19:45: FINALA

A R E T X A B A L E T A N  
R E S I D E N C I A L B E R O A

- Duplexak terrazekin
- Atikoak terrazekin
- Logela bateko eta bi logelako apartamentuak
- Hiru eta lau logelako etxebizitzak

Orain aukeratu egin dezakegu!

Informa zaituz Aretxabaletako gure bulegoan (obra aurrean)  
Belorrieta auzoa 13. Tel. 943 711 770

## AZPEITXI

*Jatetxea*

- Oilaskoa
- Paella
- Gisatua
- Entsalada errusiarra
- Patata-tortilla
- Erredondoa saltsan

Arenerreka 13  
943 76 55 00



## ETXAGI JATETXEA

- Patata-tortilak
- Oilaskoak
- Bertara eramaten dugu!

Masterreka 8  
943 76 53 12

# Gora San Martzialak!

*Raizabal*

- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Tarta bereziak

Artekalea 9  
943 76 11 83  
Bidekurutzeta 20  
943 76 12 19



*Mujika*  
gözotegia



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako natazko eta marrubizko izozkiak

Artekalea 3  
943 76 10 34



**MANSO HERMANOS**

- Errioxako ardoa eta beste izendapen batzuk
- Sagardoa
- Likoreak
- Heineken
- Ura

Amillaga 11  
943 76 14 48  
Faxa: 943 76 14 49

### ATXEGA ARDOAK S.L.

- Mahaiko ardoa: Lopez Ojeda
- Errioxakoak: Señorío de Ojeda eta Tinto Covila
- Nafarroakoa: Castillo de Ojeda
- Ondua: Marques del Puerto
- Rueda Ferrosol
- Txakolina: Santarba
- Sagardoa: Bere-Aran

Amillaga 25  
943 76 27 76 / 38 52



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak

San Pedro 9  
943 76 10 51

San Martzialetan zure zerbitzura



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 25. alia

## IEPA LAGUNOK! URREZKO ARAUAK

Ia zuek laguntzen dostazuen beheko igarkizunak asmatzen.

Pentsatu eta pentsatu jardun dot, baiña ezin izan ditudut asmatu. Lagunen billa be ibilli naiz, ia bateren batek lagutzerik daukan baiña ez naiz iñorekin elkartu. Eskerrak bittartian txistia irakurri dotela eta barre batzuk egin ditudutela. Beranduago nere lagunekin elkartu naiz eta jolasarekin oso ondo pasatu dogu. Ia zuek be ondo pasatzen dozuen ale honekin.



- Gehixago ikasiko baneu udan oporretara juango nintzake
- Ez naiz iñorekin elkartu.



- Gehixago ikasiko baneu, udan oporretara juango nintzen.
- Ez naiz iñobezekin elkartu.



## JOLASA

Kutxa batian alfabetoko hizki danak sartuko dira, banan-banan. Jolastu bihar daben partaidietako batek kutxatik hizki bat etara eta esango dau:

"Diru asko edukiko baneu..." eta kutxatik hizki bat etarako dau.

Adibidez, "E" hizkia. Eta esaldixarekin jarraituko dau, e-z hasten dan gauza bat adierazizaz. Adibidez: "...Etxe bat erosiko neuke".

Hurrengo jokalarixak be "E" hizkiaz hasten dan beste objektu bat

erosiko leukiela esango dau eta hala, txandaka, bateren bat zer esan ez dakixela gelditutu arte.

Orduan berriro kutxara jo eta beste hizki bat hartuko da, eta aurreko gauza bera egingo da.



## IGARKIZUNAK

1 - Etxia aldian daroiat hanka barik eruanetz, nere aztarna lagatzen dot zillarrezko hari batez.

2 - Illargiaren laguna eguzkiaren etsaia pilarik gabeko linternetxo alaia.

3 - Zer dala eta zer dala aho barik jaten dabena, hanka barik dabillena eta pasatzen dan lekuan berua lagatzen dabena?



## TXISTIA

- Noiz jaio ziñan zu?
- Ez naiz oso ondo akordatzen, baiña sapatu edo domekia zala uste dot.
- Eta zela dakizu hori?
- Egun hartan eskolara juango ez nintzalako.



# ESKANDINAVIAN zehar zirkuituak

UZTAILEKO Irteerak

8 egun / 7 gau

**FINLANDIA IKUSGARRIA**

HOTELAK \*\*\*/\*\*\*\*

MO/ME

1.374

Ikustekoak: Rovaniemi, Kuopio, Koli, Savonlinna, Porvoo y Helsinki.

**NORUEGA IKUSGARRIA**

HOTELAK \*\*\*/\*\*\*\*

ME/HG

1.394

Ikustekoak: Oslo, Geilo, Bergen, Valle de Voss, Sognefjord, Región de los Fiordos, Crucero Geiranger, Alesund y Trondheim.

**ERREP. ETA BALTIKOKO PERLA EDERRAK**

HOTELAK \*\*\*/\*\*\*\*

ME

1.434

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Báltico y Estocolmo.

**FIORDOETAKO INPERIOA**

HOTELAK \*\*\*/\*\*\*\*

MO/HG

1.524

Ikustekoak: Bergen, Valle de Voss, Región de los Fiordos, Oslo y Copenhague.

**BALTIKOKO ERREPUBLIKAK**

HOTELAK \*\*\*/\*\*\*\*

ME/HG

1.518

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Helsinki y St Petersburgo.

**HORIZONTES DE GRANDEZA I**

HOTELAK \*\*\*/\*\*\*\*

HG/ME

1.519

Ikustekoak: Rovaniemi, Kiruna, Parque de Abisko, Islas Lofoten, Vesteralen, Tromso, Fiordos de Lyngen y Ulls, Ctra Atlántica, Alta, Cabo Norte, Karasjok y Lakselv.

**ISLANDIA IKUSGARRIA**

HOTELAK TUR/ 1º

HG

1.849

Ikustekoak: Reykjavik, Región de Nordurland, Myvatn, Lago Myvatn, Egilsstadir, Región de Austurland, Región Skaftafellssylur, Skogafoss, Hvalsövellur, Círculo Dorado y Laguna Azul.

## 400 bulego baino gehiago zure zerbitzura

902 108 108 - [viajesiberia.com](http://viajesiberia.com)



BAL-001-M/M

**GIPUZKOAKO BULEGOA****DONOSTIA**

- Avda. Isabel II, 7 Tel. 943 44 44 90
- Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
- Churruca, 8 Tel. 943 42 35 50
- Matia, 48 Tel. 943 22 40 89
- Padre Larroca, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
- San Martín, 6 Tel. 943 42 00 71

**ARRASATE**

- Kontzezino Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72

**BERGARA**

- Ibargarai, 3 Tel. 943 76 98 70

Irteerak Bilbotik. Prezioak pertsonako logela bikortze eta aurretik aipatutako erregimenean, uztaileko egun konkretuentzat bakarrik. Aireko tarifen igoera, tasa bida eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: HG, Hotela eta Gosaria; ME, Mantenu Erdia; G, Guztia Barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**

ZURE OPORRENGATIK EGIN  
DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

Irteerak  
**BILBOTIK**

VIAJES  IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...



Argazkian, Itziar Alberdi eibartarra. Besteak beste, Interneten eskuragarri izango da jasoko duten material guztia.

ARTXIBOA

**EUSKARA/XX.** mendeko bizimodua ezagutzeko ahozko testimonioak jasotzen dihardute

# Ahozko ondarea jasotzen dabil Badihardugu elkarteak

EDU MENDIBIL

Udalarekin sinatutako hitzarmenaren ondoren, Badihardugu euskara elkarteak Bergara aldeko ahozko ondarea jasotzeko eta antolatzeko lana egiten ari da.

Badihardugu elkarteko Itziar Alberdik irailean ekin zion ahozko ondarea jasotzeko lanari. Dagoeneko dozena bat elkarrizketa egin ditu Bergaran, bideo digitalean 40 ordu inguruko materiala jasoz. Eibarko ahozko ondarea jaso ondoren, gaur egun Elgetan, Soraluzen, Mallabian eta Elgetan ere antzeko lana egiten ari da Badihardugu.

### TOKIAN TOKIKO EUSKARA

Hain zuzen ere, tokian tokiko euskarak indarra hartzea da Badihardugu elkartearen helburuetako bat. Deba Ibarreko Ahozko Ondarearen bilketa proiektuari eutsiz, Udalak eta Badiharduguk elkarlanean jarraitzeko akordioa berrituko dute aurki.

Lehendik ere Udalaren esku zegoen materiala sailkatuko dute: lanbide zaharren inguruan egindako elkarrizketak edota toponimiaren eta Bergarako euskararen azterketa egiteko egindako grabazioak, besteak beste: "Oso mate-

rial baliotsua da garai bateko bizimodua nolakoa zen ezagutzeko laguntzen digu. Hortik abiatuta, jende nagusiarengana, kontu zaharrak esateko erraztasuna dutenengana jo dugu" dio Itziarrek.

## Liñua: Anizeta Agirre hizlari

"Bai, liñua erein ta liñuak loria ederra eukitzen dau e, anillan kolorekoa, dana berdin-berdin, ustez itsasua dala... Liñua erein egitten zan, beste edozein hazi bezelaxe. Ta liñazixa erein, ta liñua lastua bezelaxe batzen zan, etara egitten zan gainera, ebagi ez. Etara egitten zan; oso sustarretik. Gero, ba, sorta txiki batzuk egitten zien, ta harek sortak, zertu, lotu, berakin, bedarrakin berakin, ta igertzen eukitzen zien kanpuen, zelaixen zabaldua. Gero handik batu ta labien berotu, ta kaskaria kentzen jakon. Trangia esaten jakon, hola mihiña barrura sartzen jakon zer bat... Gero harekin harixa egitten da, ardatzien. Orduen erronda galantak egitten zien. Negu guztia liñua iruten. Ta juntau ta andra mordia ta... gabien errondia. Errondia, ba, orten zien mutillak edo, inguruetako zerak, eta han andrakumiak egoten zien gorutan egonda, liñuori iruten, harixa egitten egonda".

Elkarrizketa egileak: Iñaki Arana eta Jaione Isaselazia.

## 'Biblioporrak', udan irakurtzeko gonbita liburutegiaren eskutik

E.M.

gazte eta nagusiek izango dute zer irakurri.

Urtero moduan, *Biblioporrak* izeneko proiektua abian jarri du Udal Liburutegiak. *Liburu bat eskutan, hamaika altxor irudimenean* leolari eutsiz, adin guztietako jendearen artean irakurketa bultzatzea da egitasmoaren helburu nagusia. Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Oñati, Antzuola, Legazpi eta Bergarako udal liburutegiek, adinaren arabera banatuta, 70 titulu (euskaraz zein gazteleraz) proposatzen dituzte aurtengo udarako. Ipuinak, nobelak eta entsegu-lanak dira tartean. Besteak beste, *Erraldoia eta txoriak*, *El perro de los Baskerville* eta *Aire beltza* dira aukeratutako liburu batzuk. Esan bezala, gaztetxo,

### ORDUTEGI BERRIA UZTAILEAN

Udal Liburutegiko arduradunen arabera, udako oporrak irakurtzeko garai aproposa da. Hori dela eta, liburutegiko bazkideei animatzen diete *Biblioporrak* kanpainaren eskaintza ezagutzera. Datorren uztailaren 1etik aurrera ordutegi berria izango du Errotaldeko liburutegiak: aste barruan 08:00etatik 13:30era izango da zabalik eta astelehenetan eta eguenetan arratsaldez ere irekiko dute, 16:00etatik 20:00etara. Abuztuan, berriz, goizez bakarrik egongo da zabalik. Edozein argibidetarako hau duzue Udal Liburutegiko telefono zenbakia: 943 77 91 62.



Irakurketa bultzatzea da *Biblioporrak* egitasmoaren helburu nagusia.

ARTXIBOA

## LABUR

### Electric Eel Shock eta Surfin' Kaos taldeen kontzertua uztailaren 2an Jam aretoan

Electric Eel Shock eta Surfin' Kaos taldeek kontzertua emango dute datorren egubakoitzean, uztailaren 2an, Jam aretoan. Electric Eel Shock taldeak *Go Europe!* bere azken diskoa aurkeztuko du. Kontzerturako sarrerak 16,60 eurotan daude salgai.

### Combosea eta Peste taldeak izango dira gaztetxean, egubakoitzean eta domekan

Bartzelonatik datorren Combosea taldeak kontzertua emango du gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

Domekan, berriz, beste kontzertu bat izango da gaztetxean. Peste taldeak joko du, 19:30ean hasita.

**Dixula**  
BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tel.: 943 76 44 95

**EDEL**  
TAPIZ DENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena*

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

**ARRI**  
Industri hornidura  
Latigilloak

Telleria 2  
BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da Suan Juango baserri honen izena?

BERGARAROSPETSUAK

Nikolas Muxika (1)

KOLDO PEREIRA

S an Pedro kaleko 21. zenbakian (gaurko 19. zenbakian) jaio zen Nikolas Muxika, 1885eko abenduaren 6an. Alejandrino Irureta maisuarekin hasi zen pinturan, eta diru arrazoiak tarteko, dekorazio lanetan hasi behar izan zuen. Besteak beste, Bergaran ospatu ziren Euskal Jaietan antzestu zen Txanton Piperrri antzezlaneko dekoratuak egin zituen. 1914an, Elbarko Armagintza Eskola- ren inaugurazioan paisajista gisa aurkeztu zuen bere burua. Urte batzuk geroago, 1922. urtean hain zuzen ere, itxi egin zuen dekorazioko tailerra buru-belarri pinturan sartzeko asmoz, eta Zarautzera joan zen bizi izatera, eta estudioa ireki ondoren, bertan bizi izan zen denboraldi batez. 1924an, Madrilgo museoetan ikasteko Gipuzkoako Diputazioaren beka bat lortu zuen.

Paisajista bikaintzat hartu du nazioarteko kritikak. Bere lan ederrak Euskal Herrian egin zituen eta haiekin arrakasta artistiko eta ekonomiko handiak lortu zituen Latinoamerikan. Ia bere margolan guztiak hango herrialdeetan daude, bilduma partikularretan.


*Ia bere margolan guztiak Latinoamerikako herrialdeetan daude, bilduma partikularretan*



ARTIBGA

GALDEDEBALDE

1. Zein urtetan hil zen Justo Garate bergarar mediku ospetsua?  
A/ 1991n.  
B/ 1994an.  
C/ 1984an.
2. Zein elkartetan dihardu lanean Itziar Alberdi eibartarrak?  
A/ Badihardugu.  
B/ Topagune.  
C/ Debagune.
3. Ameriketara, non egin zuen lan Lorentzo Askasibar eskultoreak?  
A/ Argentinan.  
B/ Estatu Batuetan.  
C/ Mexikon.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ARANTZA AGIRRErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Arantza!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: Barrenkalean / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Cojonudos esparragoak

6/8 pieza, 325 g.

1,45 €

241 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



IRURAK MARGOAK  
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak  
Moketa eta sintasola Harea zorrotada  
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

Arotz lanetan behar duzun guztia



AZKARATE  
ARROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20



Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

# Artista koadrila 1957. urtean

**A**rtista koadrila baten argazkia ekarri dizuegu oraingo astean txoko honetara. Hain zuzen ere, 1957. urtearen amaierakoa da eta Lasa jatetxean ateratakoa ei da.

Lorentzo Askasibar eskultore elgetarra Ameriketako Estatu Batuetara joan zen bizi izatera, 1958ko urtarrilean, eta argazkiko lagunek agur afaria eskaini zioten. Askasibarrek 20 urte inguru eman zituen AEBetan, Vermont-en, Stamford-en eta New Yorken. Kontxita Albenizekin ezkondu zen New Yorken eta euren hiru seme-alabak AEBetan bertan jaiotakoak dira. Askasibarrek eskultore lanak egin zituen; besteak beste, Stamford-en dagoen Cristobal Colonen eskultura eta New Yorkeko suhiltzaileei Beth Page-n, Long Island-en eskainitakoa berak egindakoak dira. Gaur egun Gasteizen bizi da Lorentzo.

Hara hor zeintzuk diren argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara: Simon Arrieta margolaria, Toribio Jaurerri argazkilaria, Lorentzo Askasibar, Miguel Okina margolaria eta Fernando Azkargorta, margolaria baita ere.

Argazkia Jesus Okinak ateratakoa da. Hori dela eta, aulki bat hutsik ikusten da erretratuan. Okina tailagilea zen, eta Lorentzo Askasibarri eskolak eman zizkion Bergarako Arte eta Ofizioen Eskolan.

Argazkia: Josu Okina



### ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero,  
zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera.  
Zain gaituzu!

# AZPEITXI

## Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta  
era guztietako kargak

# JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29


# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



## JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95



## Silvestre Muñoz, s.l. pinturak

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

Pintura-lanak  
orokorrean  
•  
Pintura industrial  
•  
Zoru arinak:  
sintasolak, moketak...

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko martxoaren 26a / 195. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


## Gizarte etxea Sagastiko zelaian egitea jasotzen du Udalaren aurreproiektuak

USOA AGIRRE

**Gizarte etxearendako aurreproiektua egin du Udalak. Bertan jasotzen denez, Sagastiko zelaian egingo dute gizarte etxea eta lehen maristen eraikina zegoen lekuan etxebizitzak egingo dituzte. Urtebete barru lanekin hasteko asmoa du Udalak.**

Azken asteotan gizarte edo kultura etxearen aurreproiektua aurkezten aritu dira Udaleko arduradunak hainbat bizilagunen artean. Aurreproiektu horrek jasotzen duenez, gizarte etxea Sagastiko etxebizitzaren ondoan dagoen zelaian egingo dute. Hantxe jarriko dituzte kultura jardueretarako lokalak eta hainbat gizarte zerbitzu. Besteak beste, medikuaren kontsulta, erretiratuendako lokala, zinema, kafetegia eta nagusiendako eguneko zentroa egingo dituzte. Aurreproiektuaren arabera, bi solairu izango ditu gizarte etxe berriak, eta lehenengo solairua bigarrena baino handiagoa izango da. Hala, lehenengo solairuaren teilatua berdegunea jarriko dute. Izan ere, orain jolasgune den zelaia hartuko du eraikinak, eta alternatiba moduan teilatu gainean jarriko dute berdegunea.

Lehen maristen eraikina zegoen lekuan, berriz, etxebizitzak



Gizarte etxea Sagastiko etxeen ondoko zelaian egitea jasotzen du Udalaren aurreproiektuak.

egingo dituzte. Baina lehenengo eraikina zegoen noranzkoan beharrean, errekaaren paralelo eraikiko dituzte etxeak, Beheko auzoko eta Eguzki auzoko etxeei jarraituz. Etxebizitza batzuk Udalak babestutakoak izango dira; beste batzuk, ordea, ez. Oraindik ez dakite zenbat etxebizitza egingo dituzten. Etxebizitzaren azpian garajeak egingo dituzte, bi solai-

rutan. Beheko auzoko kirol kan txaren azpian orain dauden garajeak bota egingo dituzte, eta etxebizitzaren azpian joango dira garaje guztiak.

### DATORREN URTEAN HASTEKO

Hori, baina, aurreproiektua besterik ez da oraindik, eta arkitektoak proiektua egiten ari dira. Udaleko arduradunek uste dute

urtebete barru-edo gizarte etxea eta etxebizitzak egiteko lanekin hasteko moduan egongo direla.

Udalak kiroldegia egiteko asmoarekin ere aurrera jarraitzen du. Zupide baserriaren ondoko zelaian egin nahi dute kiroldegia. Orain, Udalaren asmoa da lehenbailehen zelai horretako lursailak erostea, gero kiroldegia egiteko.

## JAIK

### San Pedroak ospatuko dituzte Kalebarrenean

AINZANE IRIZAR

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte Kalebarrenean San Pedro jaiak; 20:00etan jaurtiko dituzte jaien hasiera iragartzeko etxafuegoak. Horren ondoren, trikitilari gazteekin kalejira izango dugu. 22:00etan, erromeria izango da Zurrategi plazan, Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariekin.

Bihar, zapatua, goizean hasiko dituzte ekitaldiak; marrazki lehiaketa egongo da neska-muti-

koendako, 11:00etan. Gero, 12:00etan, ginkana jokoak egongo dira, Peña Aiastuik antolatuta. 12:30ean, kalejira egingo dute soinu jotzaileekin. 13:00etan, berriz, marrazki lehiaketako sariak banatuko dituzte.

Zapatu arratsaldean ere ez dute aspertzeko aitzakiarik izango neska-mutikoei; 16:30ean, umeendako eskulan tailerra egongo da, eta 19:00etan, buruhandiak.

20:00etan hasiko dute ohiko

arbola jasotzea Ondarreko gaitarien laguntzarekin. Arbola jaso ondoren, kalejira egingo dute. 21:00etan, berriz, afaria egingo dute. Afalostean ez da dantzarako aukerarik falta izango: 22:30ean, Bidusound diskoteka mugikorra Zurrategira etorriko zaigu. Zapatuko ekitaldiekin bukatzeko, 00:00etan, ohiko sagar dantza egongo da, eta horren ondoren, sua egingo dute erreka kontran.

Domekan amaituko dituzte aurtengo Kalebarrengo jaietako

ekitaldiak. Goizeko hamarretan, txistulariekin goiz-eresia izango dugu; 11:30ean, meza nagusia egingo dute. Eta gero, salda eta txorizoa banatuko diete antolatzaileek herritarrei.

Eguerdiko 12:30ean, dantza saioa izango dugu. Arratsaldean, berriz, 18:00etan, kale antzerkia izango dugu Zanga taldearen eskutik. Jaietako amaiera emateko, 19:30ean, Alaitz eta Olatz trikitilarietako erromeria egongo da.

## LABUR

### Erretiratuen Egunean bazkaria izango da

Uztailaren 11rako Erretiratuen Eguna antolatu dute. Herri ikastetxean egingo den bazkarirako txartelak datorren astean salgai jarriko dituzte. 28an, 29an eta 30ean eta uztailaren 1ean eta 2an, 18:00etatik 19:00etara erosi ahal izango dira, erretiratuen elkarteetan, hiru eurotan.

### Gaztetxoek lokala gauetan ere egongo da zabalik

Gaztetxoak oporretan dauden bitartean, gauetan ere zabalik egongo da Errekaldeko lokala. Egubakoitzetan eta zapatuetan, 21:00etatik 23:00etara zabalduko dute. Bestalde, zapatuetan, 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta domeketan, 16:00etatik 21:00etara.

### Liburutegiak ordutegi berria du, irailera arte

Udal Liburutegiak ordutegi berria dauka atzo ezkerre (eguna). Irailera arte, goizez bakarrik zabalduko dute, 11:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere. Udaletxe bulegoa ere 08:00etatik 15:00etara dago zabalik, irail amaiera arte. Abuztuan, berriz, 08:00etatik 14:00etara zabalduko dute.

### San Joan jaiak ospatuko dituzte Uzarragan

Auzoko zaindariaren jaiak ospatuko dituzte etzi, domeka. Uzarragako auzotarrek, 10:00etan meza nagusia izango da; horren ondoren, Oinarin dantza taldekoen saioa egongo da, eta eguerdi aldera, berriz, pintxoak eta ardoa banatuko dituzte antolatzaileek Uzarragara joaten diren herritarren artean.



ELKARRIZKETA

MAIALEN LEGORBURU/GIMNASTA

*“Gimnasia erritmikoa gogorra da, asko gustatu behar zaizu”*

A.I.

**E**uskadiko gimnasia erritmiko txapelketa dugu Maialen Legorburu gimnasta antzuolarra, gazteen mailan. Taldeka, berriz, Euskadiko azpitxapelkunak dira antzuolarrak. Bergarako Ariznoa gimnasia taldearekin entrenatzen dira antzuolarrak.

**Zorionak! Euskadiko gimnasia erritmiko txapelketa irabazi berri duzu. Pozik egongo zara...**

Bai, oso pozik nago. Euskadiko txapelketa irabazten dudan lehenengo aldia da; iaz, hirugarren geratu nintzen, Gipuzkoako txapelketan, berriz, Jehenengo postuan sailkatu nintzen.

**Banaka, gazteen mailako txapela irabazi duzu, ezta?**

Bai; banakako proban, zintarekin eta mazoekin parte hartu nuen eta lehenengo geratu nintzen.

**Taldeka ere emaitza ona lortu zenuten.**


Bai, bigarren geratu ginen; taldean gehienok Antzuolakoak ginen: Uxue Arregi, Maddalen Toledo, Iraitz Gastiain eta neu ginen antzuolarrak. Gurekin batera, bergarar batek eta angiozartar batek hartu zuten parte. Pozik gaude lortutakoarekin, baina, egia esan, nahikoa gaizki ateratu zitzaigun taldekako lana.

**Antzuolako gainerako gimnastek ze emaitza lortu zituzten banaka?**

Gazteen mailan, bi maila bereizten dituzte: gazteen A maila eta B maila, hain zuzen ere. Iratze eta nik B mailan parte hartzen dugu; Iraitz hamargarren geratu zen. Uxuek eta Maddalenekek, berriz, B mailan dihardute: Uxuek laugarren egin zuen, eta Maddalenekek, zazpigarren.

**Badirudi zaletasun handia dagoela Antzuolan. Neska askok diharduzue gimnasia erritmikoan.**

Hala da, bai; hasieratik izan du arrakasta herrian, orain ere neska mordoska gabilta. Neu



A.I.

*“Astean hiru egunez entrenatzen gara Bergaran, Ariznoa taldearekin; egunean, bi orduz”*

bederatzi edo hamar urterekin hasi nintzen.

**Zenbat entrenatzen zarete?**

Martitzenetan, bi ordu eta erdi, eta eguenetan eta egubakoitzetan, bi ordu. Txapelketak dauzkagunean, berriz, eguztinetan Antzuolan entrenatzen gara, eta zaturen baten ere tokatzen zaigu.

**Kirol oso gogorra dela esaten dute. Hala da?**

*“Unibertsitatean hasten naizenean, seguruen, laga egingo dut gimnasia erritmikoa”*

Kirol hau asko gustatu behar zaizu. Lan handia egin behar da eta konstantea izan behar duzu. Gogorra da, bai.

**Gimnasta gehienek oso gazte lagatzen dute kirol hau. Zeuk zer asmo daukazu?**

Beste pare bat urtez jarraitzeko asmoa daukat; unibertsitatean hasten naizenean laga egingo dut, ez dut eta nahikoa denbora izango.

JAIK

Lore lehiaketako sariak banatu dituzte

A.I.

Urtero bezala, San Joan bezperan hainbat ospakizun egin zituzten Herriko Plazan: ohiturari jarraituz, arbola jaso zuten eta Oinarin dantza taldekoen saioa izan genuen. Aurreko urteetan bezala, San Joan sua ere egin zuten.

**LORE LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**

Herriko balkoi eta leihoetako loreen lehiaketako sariak ere San Joan bezperako ospakizunen barruan banatu zituzten. Bi sari ematen dituzte lehiaketa horretan: bata, alde zaharreko balkoi bati, eta bestea, alde berriko balkoi bati.

Alde zaharrari dagokionez, Kalebarrengo balkoi batek jaso

du lehenengo saria: Aurora Sanchez eta Alejandro Muxika senar-emazteen balkoiak, hain zuzen ere.

Alde berriko balkoiari dagokionez, Ibarrondoko balkoi bat izan da dotoreena, epaimahaikideen ustez; Iñaki Askasibarren eta Pantxika Baleztenaren balkoia, hain zuzen ere.

Udaleko arduradunen esanetan, aurten ez dute hain zaila eduki erabakia hartzea. Izan ere, aurreko urteekin alderatuta, aurtengo maila askoz baxuagoa izan da; gainera, askoz jende gutxiagok jarri ditu loreak balkoietan.

Sariketa horrekin, Udaleko arduradunen helburua da herria apaintzen laguntzen duten herri-tarrei euren lana eskertzea.



Iñaki eta Pantxikaren etxea, Ibarrondon.



Aurora eta Alejandroren balkoia, Kalebarrenen.

**LARREA**  
TABERNA  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJIKA HARATEGIA**  
  
Berezitasunak:  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak  
Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**AITZ-GARBI**  
taberna jatetxea  
  
Pintxoak eta kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak  
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA

*Juan Cruz*  
**ARGAZKIAK**  
Ezkontza erreportaiak  
Jaunartze erreportaiak  
Momentuko argazkiak  
Estudioko argazkiak  
**BITXITEGIA**  
Marrokineria  
Erlojuak, Bitxiak  
Opari gaiak  
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko martxoaren 26a / 179. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Flamenko eta zirku ikuskizuna Espaloia aretoa inauguratzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Espaloia Kafe Antzokiaren inaugurazio ofiziala bihar izango da, eta ordutik aurrera egunero egongo da zabalik. Horretarako, ikuskizun berezia egongo da. Albadulake antzerki konpainiak zirkua eta flamenkoa uztartzen dituen *Malaje* antzezlanaren taularatuko du.

Espaloia aretoak atek zabaltu ditu, hain denbora luzean zain egon eta gero.

Udalak egokitu ostean, 2000. urtearen amaieran hasi ziren Espaloia erabiltzen hainbat ikuskizun eta ekitaldi egiteko, baina orduan ez zegoen emanaldiak egiteko behar bezala gertatuta.

Aurten, aldiz, aretoa ekipatu eta orain ikuskizunetarako zein jantze modura erabili ahal izango da.

Hainbat herritarrek izan du aretoa bera ikusteko aukera, eta gaurtik, barikutik, aurrera dantzarekin lotutako erakusketa ere ikusgai izango da bertan. Gainera, eguneko menuak ematen hasi dira eta asteburuetan bazkaltzeko eta afaltzeko aukera egongo da.

Ateak zabaltu arren, aretoaren inaugurazio ofiziala bihar, zapatua, egingo da. Espaloiak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz ikuskizun berezia izango da gauean, 22:30ean hasita.

### ZIRKUA ETA FLAMENKOA UZTARTUZ

Albadulake antzerki konpainiak *Malaje* lana ekarriko du Espaloiko taula gainera.

*Malaje* antzezlanean zirkuak eta flamenkoak bat egiten dute, eta ikuskizun berritzailea sortu. Dantza eta perkusioa uztartuz musika tresnak jolas modura erabiliko dituzte, horiekin besteak beste malabareak egingez, eta ikusleak berenganatuz.

Sei artistak osatzen dute Albadulake taldea: Juan Antonio Morenok malabareak egingo ditu, Angeles Break dantza, Roxi Katcheroff-ek eta Antonio Vargasek oreka jokoak eta gainontzeko biak musikaz arduratuko dira: Carlos Torres *El Llaguita* gitarran (bera da antzezlanaren musika) eta Pablo Moreno perkusioan.



Flamenko doinuak entzun ahal izango dira ikuskizunean.



Malabareak ere egingo dituzte.

Ez dute edozein antzerki talde aukeratu Espaloikoek aretoa inauguratuko duen ikuskizuna eskaintzeko. Izan ere, Albadulake konpainiak, *Malaje* izeneko bere azken ikuskizunarekin, sari bat eskuratu berri du Gijongo Feten antzerki jaialdian. Haurrei, gazteei eta familiei zuzendutako antzezlanen jaialdirik garrantzitsuenetarikoa da.

“Ziur gaude gure konpainiaren lana eta ibilbidea bermatzen

dituen sari honek Frantzian eta Suitzan lortutako arrakasta baieztatzen duela, eta Espainian ere oihartzuna izatea merezi dugula, ez bakarrik zirkuaren inguruko ikuskizunetan, baita antzerkiaren, dantzaren edo musikaren munduan ere”, diote Albadulakeko artistek.

### KULTURA EKITALDI GEHIAGO

Goibeko Kultura Elkartearen arduratuko da hemendik aurre-

ra aretoa kudeatzeaz, eta urtean zehar gutxienez ekitaldi batzuk antolatuko beharko ditu bertan. Bestalde, Udalak ere urtean zehar aretoa erabili ahal izango du egun batzuetan. Gainera, Udalaren iritziz, Espaloia biderik egokiena izango da elgetarrei kultura eskaintza zabalagoa emateko.

Beraz, Espaloia Kafe Antzokia zabalik denez, elgetarrek gune berri bat dute kultur eskaintza zabalagoa jasotzeko.

## Espaloia: kulturarako plaza

Goibeko Kultura Elkartearen apustu ekonomikoa izateaz gain, apustu estrategikoa ere bada Espaloia Kafe Antzokia.

Elkartearen helburu nagusia da kultura ekitaldiak ahalik eta modurik duinean eskaintzea. Areto horrek ziurtatuko du herritar guztiendako plaza berri bat izatea. Kulturarendako leku zaindua denondako: ume, gazte, guraso, erretiratu eta herritar guztientzako.

Herritarrengana ez ezik aretoko eskaintza zabaltu nahi da herritik kanpora ere. Batez ere Debabarrenera

eta Debagoienara, baita Bizkai aldera ere eta hainbat ekitaldi zehatzetan baita Euskal Herrira ere.

Kultura izango da helburu nagusia, eta izango dira hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak, antzerkiak, zinekluba, dantzaldiak, etab.

Areto horrek bere eskaintzen artean enpresen bilerentzako leku aproposa ere eskaintzen du, Interneteko konexioekin eta irudi proiektzio aukerekin. Ezin ahaztu eguneko menuak ere emango direla; izan ere, sukaldea eta jantokia izango ditu 70 pertsonarentzako.



### LABUR

#### Erretiratuendako irteera Arratera uztailaren 15ean

Eibarren, Arraten, hain zuzen ere, erretiratuena jaia izango da datorren uztailaren 15ean. Bertara joan nahi duten Elgetako erretiratuendako bidaia doan izango da. Bazkaria, berriz, norberak eraman beharko du. Hala ere, 12 euroren truke Arrateko Kantabria jatetxean menua hartzeko aukera egongo da nahi duenarentzat. Irteeran parte hartu ahal izateko Miren Villarrengana joan beharko dute interesatuek izena ematera ekainaren 30a baino lehen.

#### Zortzi ume berri Herri Eskolan irailtik aurrera

Ikasturtea amaitu dute Herri Eskolako umeek, eta bukarako jaia egin zuten Espaloian. Gainera, azken eskola egunean ikasle eta irakasleek guztiek batera bazkaldu zuten eskolan bertan. Aurtengo kurtsoa bukatu eta datorrenarekin pentsatzen hasiak daude Herri Eskolan. Ikasturte berrian zortzi ikasle hasiko dira 2 urtekoen gelan. Bestalde, irailean ipiniko dute abian Elgetan Haur Eskola, Herri Eskolako eraikinean, eta hirumek eman dute izena.

#### Herriko taldeak areto futboleko finaleratik kanpo

Zapatuan areto futbol txapelketako finalerdiak izan ziren jokoan. Ariniketan taldeak 12 gol egin zituen Mekanakiko-en atean, eta haiek, berriz, bakararra aurkarienean. Bigarren partidua Txapela eta Vicios taldeek jokatu zuten eta emaitza 3-5 izan zen. Beraz, etxeko taldea, Txapela, txapelketako finaleratik kanpo geratu da. Finala bihar jokatuko dute 17:00etan hasita. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidurik, berriz, ez da jokatuko.

ARAU SUBSIDIARIOAK

# Etxebizitzen gaineko arau subsidiarioak aldatuta, babes ofizialekoez gain bestelako etxeak ere eraikiko dituzte

I.A.

Arau subsidiarioetan, etxebizitzaren gaian, aldaketa egitea onartu zuten azken udalbatzarrean. EAJ-EAren aldeko eta Aralarren aurkako botoekin. Aldaketak eragingo du babes ofizialekoak ez ezik, etxebizitza tasatuak edo bestelako habestuak ere egitea.

Udalbatzarrak ezohiko bilkura egin zuen joan zen astean, eta bertan, Elgetako arau subsidiarioen testu bateratuari aldaketa batzuk egitea erabaki zuten.

Aldaketa horiek 5, 6 eta 8 egoitza-guneetan eta I egoitza sektorean dute eragina. Arau subsidiarioak moldatuta, hirigintza helburuak aldatu egin dira. Horren ondorioz, orain, babes ofizialeko etxez gain, area horietan etxebizitza tasatuak edo beste babes publiko mota batekoak eraikitzeak aukera egongo da.

Alkateak aldaketa hori egiteko arrazoia zein izan den azaldu zigun: "Hainbat gunetan, etxebizitzak eraikitzerakoan kopuru batek babes ofizialekoa izan behar zuela jasotzen zuen lehengo arauak. Baina Torrealdean babes ofizialeko etxeak eraikitzeak enpresa bakarra aurkeztu zen. Izan ere, babes ofizialeko etxeekin lortzen dituzten irabaziak txikiagoak dira. Aurrerantzean ere arazo bera izango zela ikusita, aldatu egin dugu. Hala ere, kasu bakoitzean erabakiko da zein eratako etxeak eraikitzen diren".

**ARALAR, AURKA**


EAJ-EAk proposatutako aldaketaren aurka bozkatu zuten Aralarako zinegotziak.

"Gazteengan eta behar handien dutenengan pentsatu beharrean, eraikitzaileengan pentsatu dute EAJ-EAkoek aldaketa egiteko orduan", esan dute Aralarako ordezkariak.

Euren ustez, Elgetan bideragarriak dira babes ofizialeko etxebizitzak. "Horrek esfortzu ekonomiko egitera behartzen du Udala. Aralar prest dago esfortzu hori egiteko, baina EAJ-EA ez".

Bestalde, Udalak Uruburuko etxebizitzaren gaineko lehen plana onartuko du aurki, eta horren gainean ere Aralarreko azaldu dute euren iritzia: "EAJ-EAk onartu duen aldaketak Uruburun babes ofizialekoak izan behar zuten etxebizitzak tasatuak izatea ekarriko du, hau da, garestiagoak. Ahalegin ekonomiko eginda, Uruburun ere bideragarriak dira babes ofizialeko etxebizitzak".

Aralar alderdiko zinegotzien ustez, "horrelako aldaketa bat egin aurretik herrian beharrezkoa da etxebizitzaren gaiaren gaineko eztabaida sakona, eta ez da horrelakorik egin. Udalean ere, EAJ-EAk ez du Aralarren iritzia kontuan hartu prozesu honetan guztian".



Torrealdean eraikitzen ari diren etxeen ondoan babes ofizialekoak egingo dituzte.

LUDOTEKA

## Kultura etxean bi gela egokitzen dihardute Ludoteka ipintzeko

I.A.

Ludoteka ipini nahi dute abian Elgetan. Horretarako, kultura etxean bi gela egokitzen dihardute. Uztailean arratsaldez irekita edukitzeko asmoa dute arduradunek, baina horretarako umeez joan behar dute. Izena emateko epea ekainaren 25era arte da.



Egun hauetan mahaiak eta aulkiak margotu eta gelak txukunduko dituzte.

Kultura etxean, orain arte Goibeko Kultura Elkartearen egoitza egon den gelan, egokitze lanetan dihardute. Izan ere, bertan eta horren pareko beste gela batean ludoteka ipiniko dute.

Bertan dihardute lanean Rebeca Uberak, Nagore Oianguren, Maialen Elortzak eta Mari Karmen Bolinagak. Azken bi horiek azaldu dizkigute ludotekaren nondik norakoak: "Eskolako ekintzez gain, umeen denbora libre betetzeko zerbaiten beharra ikusten da herrian, eta ludoteka hutsune hori betetzeko modu egokia izan daitekeela uste dugu".

Maialen Elortza eta Mari Karmen Bolinaga Irakasle ikasketak egiten ari dira eta Nagore Oianguren Integrazio ikasketak. Ikasitakoarekin zerikusia duen horretan jardun nahi dute, eta umeekin lan egiteko gogoz daude. Beraz, herriko umeei ludotekara joateko dei egin nahi diete.

**UZTAILEAN ZABALIK**

Eskulanak, jolasak, antzerkiak, ipuinak, mendi irteerak... egiteko aukera eskainiko die ludotekak umeei. Baina ekintzak bertan dauden umeen arabera egokituko dituzte pixkanaka.

Umeez ekainaren 25era arte izango dute ludotekarako izena

emateko. Udaletxera joan eta izena ematen dutenek uztailean arratsalde bertara joateko aukera izango dute.

Abuztuan etena egin ostean, irailean ikasturtea hasi ahala berriz ere ludoteka abian jartzea da euren asmoa; orduan astean bi aldiz egongo da irekita.

HEZKUNTZA

## Eskola Txikien Jaiaren lekukoa Elgetan da

I.A.

Ekaineko bigarren asteburuan Eskola Txikien Jaia egin zuten Aizarnazabalen. Elgetako Herri Eskolako hainbat ikaslek eta gurasok hartu zuten parte bertan. Baina jaiaren esku hartzeaz gain, izan zuten beste zeregin bat: jaiaren lekukoa jasotzea. Datorren urtean Elgetan izango da Eskola Txikien Jaia, eta lekukoa ez ezik jaia antolatzeko ardura ere pasa diete Aizarnazabalgo eskolakoek Elgetakoei. Lekukoa egurrezko eskultura bat da, eta hainbat lazo ditu, orain arte Eskola Txikien Jaia ospatu den herrien izenekin.

**KAMISETAK**

Lekukoa eskolan dago, baina hura hartu aurretik hasiak ziren lanean eskolako gurasoak, eta, besteak beste, kamisetak egin eta asteburu honetan bertan salgai ipintzeko asmoa dute.

Kamisetan azalduko den irudian eguzki bat agertuko da, hura baita eskola txikien ikurra, eta horrekin batera teilatu bat eta Elgetan hain ezaguna den arkuaren zati bat.

Hala, domekan Euskal Jaia dela aprobetxatuz, kamisetak saltzen ibiliko dira, baita Azoka Nagusiko jaietan eta Elorrioko jaietan ere. Gero, negurako beste arropa batzuk aterako dituzte.



Aizarnazabalen egindako jaiaren jaso zuten elgetarrek lekukoa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Bai, pentsatzen ari zaren  
guztia egiteko gauza da.



**Opel Astra berria. Fida zaitez zure begiez.**

Gertuagotik begira egiozu: IDSplus gidatzeko sistema interaktiboa, Sport Switch botoia kirol-gidatze hobea izateko, ECOTEC motor indartsuak, Twinport, 200 ZP-rainoko CDTI, eta faro egokituak dituen bakarra bere klasean

**Proba ezazu zure Opel kontzesionarioan**

Astro gama: kontsumo (l/100 km) mistoa 4,9 tik 9,1 era. CO<sub>2</sub> emisioa (g/km) 132 tik 218 ra

# Giauto

Olabarrena z/g Tel. 943 76 33 44/46. BERGARA

# Goibekokale

ELGETA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 25a / 191. zenbakiaren gehigarri berezia



## FERIXANAGUSIA04

JATORRIZKO ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!



MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.

ATREBENTZIAEZPADA/ **Jaietako programan ez dagoen zein ekitaldi ipiniko zenuke?****NEKANE ESPOSITO**  
40 urte

Zerbait eskatzen hasita eguraldi ona egitea eskatuko nuke, baina hori ez da programako kontua. Bestela, umeendako jolasak egotearekin nahikoa dut, eta horiek badaude.

**JESUS ASTOBITZA**  
77 urte

Parrandarako zahartuta gaude eta dagoenarekin konformatzen gara, jaiak denok ditugu eta gustuko. Azokako egunean ibiltzen naiz ondoen postuak eta animaliak ikusten.

**KEPA DE VEGA**  
11 urte


Gure adinekoendako gauza gehiago jarriko nituzke, txikiendako badago Jokulandia baina guretzat ezer gutxi. Hala ere, jaietan egoten den giro polita da garrantzitsuen.

**OLATZ OLAORTUA**  
13 urte

Barrakak eta guretzako moduko kontzerturen bat, Ken 7 taldearena, esaterako. Aurreko urteetan antzerkiak eta danborrada gustatu zaizkit baina aurtan ez dago.

**AMAIA ARANTZETA**  
42 urte

Sekula ez dut ezeren faltarik sumatu, gainera urtean urtean gauza berriak sartzen dituzte. Nik jaietan herri afaria dut gogokoen eta mozarrotuta joaten naiz gainera.

**OSCAR GIL**  
36 urte

Ume txiki bat dudanez, umeendako antzerkiren bat ipiniko nuke beharbada. Niri jaietan zezentxoak ere asko gustatzen zaizkit, baina oro har herrian jai giroa egotea da inporta duena.



# Ondo pasu jaixak elgetar guztiok!

## Goibekokale

*autopullmans*

# Araba

**Jai zoriontsuak  
pasa ditzazuela  
elgetar guztiok!**

Tel.: 943 76 55 70 ANGIOZAR

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue  
elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*

## *Ondo pasau!*

EGITARRAUA

# EGITARRAUA

## Ekainak 26

22:30 ESPALOA aretoaren INAUGURAZIOA eta jaien aurkezpena.  
Malaje antzezlan  
Albadulaque konpainiaren eskutik.

## Ekainak 27

### Umeen Euskal jaia

11:00 HARRERA.  
11:30 KALEJIRA.  
12:30 DANTZA saioa plazan.  
13:30 BURUHANDIAK.  
14:00 BAZKARIA.  
16:30 BURUHANDIAK.  
17:00 ALARDEA.  
18:30 Euskal Jaiaren bukaera;  
AGUR JAUNAK txistulariekin.


## Uztailak 1

11:30 JOKULANDIA: umeendako puzgarriak, koltxonetak, motorrak, jokoak...  
16:30 JOKULANDIA aurten ere zabalduko dute.  
20:00 MOZORROEN jaitsiera (Txina-Ekialde Urruna)  
21:30 HERRI AFARIA.  
00:00 LARRAIN DANTZA, Lizarrako gaiteroekin.  
00:15 LISKER taldearekin dantzaldia.

## Uztailak 2

### Erretiratuen eguna

11:30 JOKULANDIA.  
12:00 MEZA nagusia.  
13:00 AIZKOLARIAK eta BERTSOLARIAK (Bihurri aizkoran eta bertsolari gazteak bertsotan).  
14:00 Erretiratuendako BAZKARIA.  
16:30 JOKULANDIA.  
19:00 BURUHANDIAK.  
19:30 ZEZENAK ETA PONIAK.  
20:00 Erretiratuendako BOLO TXAPELKETA.  
23:00 TAPIA ETA LETURIA.  
00:00 KONTZERTUA GAZTETXEAN:  
Ttakunpa, Jaiko Barik, Lor eta Brigada Criminal.



DOMEKA 4, AZOKA NAGUSIA



DOMEKA 27, DANTZA SAIOA



TXIKIENENDAKO JOLASAK BI EGUNETAN


## Uztailak 3

10:30 Umeendako PINTURA LEHIAKETA.  
11:30 ANIMALIAK HARRAPATZEA.  
12:30 ASTO LASTERKETA.  
14:30 HERRI BAZKARIA: paella erraldoia egingo dute.  
17:00 Koadrilen arteko JOKOAK.  
17:00-21:00 SUGARRI fanfarrea.  
17:00 ZEZENAK ETA PONIAK.  
23:00 Umeendako KANTZONTZILO ETA KULERO karrera.  
23:15 Dantzaldia EGAN taldearekin.  
00:00 BOLO TXAPELKETA.  
00:00 KONTZERTUA GAZTETXEAN: Ostiada Oi!, Señor No, Cool Panic.  
05:00 TXOKOLATADA PLAZAN.  
05:00 TRIKI-POTEOA Miren eta Xabierrekin.

## Uztailak, 4

### Azoka nagusia

09:00 AZOKA NAGUSIA.  
12:00 Lau t'erdiko buruz buruko ETB KANTXA PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK.  
18:00 FANDANGO ETA ARIN-ARIN TXAPELKETA.  
20:30 KONTZERTUA GAZTETXEAN: Zelan? (Izaskun Ojanguren) eta Asier Serrano.  
21:00 SARDINA jana.  
22:30 ANTZERKIA: *Bazen behin... gutxi gorabehera* lana eskainiko digu Camping-gags taldeak.  
00:00 JAIEN AMAIERA.



# TER 2 SA

## Ondo ibili jaixetan!

Indusketak • Garraioak • Lur-mugimenduak

Bulegoak 943 76 18 34  
Faxa 943 76 03 08 BERGARA



## SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia
- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Ondo pasatu jaixetan!

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

EUSKAL JAIA

# Jaian ehun dantzaritik gora elkartuko dira

Soraluze, Bergara, Antzuola, Arrasate eta Aretxabaletako neska-mutilak egongo dira herrikoekin batera

A.I.

Aspaldiko ohitura berreskuratuz Umeen Euskal Jaia egingo dute domekan Elgetan. Egun horretan 100 dantzaritik gora izango dira herrian. Bestalde, dantzaren gaineko argazki erakusketa ere gertatu dute.

U rte asko dira Elgetan ez dela Euskal Jairik egin, eta aspaldiko ohitura berreskuratuz berriz antolatuko du Jai batzordeak.

Hain justu, domekan, ekainaren 27an, izango da Umeen Euskal Jaia.

Goizean, 11:00etan kanpoko dantzariei harrera egingo diete. Izan ere, herrikoiez gain, Soraluzekoak, Bergarakoak, Antzuolakoak, Arrasatekoak eta Aretxabaletakoak izango dira Elgetan.

Guztiak elkartu ostean, kalejira egingo dute eta gero, 12:30ean, plazan, dantza emanaldia egongo da.



Goizean kalean eta plazan jardungo dute eta arratsaldean berriz ere plazan egingo dute txikiak dantza.

Talde bakoitzak dantza bat dantzatu du. Amaieran buruhandiak irtengo dira.

#### ARRATSALDEAN ALARDEA

Herriko etxeetan bazkalduko dute kanpoko dantzariek, eta arratsaldean

alardea izango da berriz ere plazan, 17:00etan hasita. Neskek Sagar dantza, Gipuzkoako Zinta dantza eta Arku dantza egingo dituzte. Mutilek, berriz, Banakoa, Txankarrankua eta Brokel dantza.

Horren ondoren, dantzari guztiek batera San Petit eta Txulalai dantzak egingo dituzte korroan herriko plazan.

Euskal Jaia amaitzeko txistulariek *Agur Jaunak* joko dute.

## ARGAZKI ERAKUSKETA

Euskal jaiaren aitzakian *Dantza plazara* argazki erakusketa antolatu dute. Bertan dantzaren gaineko argazkiak jaso dituzte batez ere. Joakin Gastezik laga ditu irudirik gehienak eta herriko jendearenak ere asko dira. Argazkiez gain, arropak eta dantzarako tresnak ere ipiniko dituzte ikusgai: ezpatak, makilak... Horiek Ozkarbi Dantza Taldeak eta Jorge Bolinagak utzi dituzte. Kontxi Ibarluzeak ere manikiak laga ditu erakusketan ipintzeko. Erakusketan aintzinakoak diren argazki batzuk ere egongo dira ipinita, eta hauek oinarritzat hartuta lehiaketa bat antolatu dute. Argazki horietan agertzen direnak zein diren asmatzen dutenen artean zozketa egingo da, eta irabazleak erakusketako nahi duen argazkia aukeratu ahal izango du. Horretarako erakusketako gunean bertan kutxa bat egongo da papera bete eta bertan botatzeko. Erakusketa Espaloia aretoan egongo da. Gaur, hilak 25, zabalduko ditu ateak eta 12:00etatik 23:00etara bitartean bisitatu ahal izango da, jaietan salbu.



## Ondo pasau danok Ferixa Nagusixan!

LEMA SA torlojogintza

ELGETA

www.lemasa.com

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

## Elgetako jaiak

Martitzenean, uztailaren 6an, 20:30ean



Ikustekoa!





MUSIKA GAZTETXEAN

# Askotariko musika talde eta bakarlariak gaztetxean

## Ibarreko zein kanpoko talde interesgarriak eta Izaskun Ojanguren elgetarraren debuta izango dira

ENEKO AZKARATE

Elgetako gaztetxeak protagonismoa izan ohi du jaietan, batez ere gazteen artean. Aurten ere hala izan dadin saiatuko dira.

Horretarako hiru musika emanaldi antolatu ditu Gazte Asanbladak. Eta ez nolanhiko musika emanaldiak. Izan ere, talde eta bakarlari ezagunak eta azkenaldian boladan dabil-tzanak ikusteko aukera izango dugu (Lor, Cool Panic, Jauko Barik eta Señor No bateranoak); eta, horiekin batera, talde ezezagunagoak, baina era berean interesgarriak, eta batzuk ibarrekoak, gainera (Ostiada Oi!). Hiru kontzertuak doan izango dira, gaztetxe kanpoan, dome-

### Emanaldiak

**Egubakoitzean, hilak 2, 00:00etan:**

Ttakunpa, Jauko Barik, Lor eta Brigada Criminal.

**Zapatuan, hilak 3, 00:00etan:**

Ostiada Oi!, Señor No, Cool Panic eta Bandalismo

Gratuito. Goizaldeko 5etan, triki-poteoa: Miren eta Xabi.

**Domekan, hilak 4, 20:30ean:**

Zelan? (Izaskun Ojanguren) eta Asier Serrano.

kakoa izan ezik; hura gaztetxe barruan izango da.

### IZASKUN OJANGUREN

Izaskun Ojanguren elgetarrak lehenengo emanaldia izango du jendaurrean domekan. Zelan? izena hartu du Izaskunek jendaurrera ateratzeko. Gitarra eskuan, bakarka ariko da. Musika lasaia egiten du

Izaskunek, lagunak-eta idatzitako testuei jarritakoa. Sentimenduen eta bizitzako gorabeheren gainekoak dira letrak. Bederatzi bat abesti aurkeztuko ditu, maketan jaso dituenak.

Izaskunekin batera Asier Serrano ariko da domekan gaztetxean. Lubaki bandako kidea izandakoa, Lorelei pop taldean ere



Señor No taldeak jarraitzaile ugari ditu gure artean. Zapatuan Elgetako gaztetxean izango ditugu.

jardundakoa, *Gerrari bai* (Oihuka, 2004) azken lana aurkeztuko du.

### IBARREKOAK ERE BAI

Izaskun Ojangurenez gain, ibarreko beste talde bi ere izango dira Elgetako gaztetxean: Ostiada Oi! elgetar eta bergarrez osatutako taldea, eta izenak argi uzten duen moduan batik

bat-ska musika egiten duena; eta Cool Panic bergararra, bigarren diskoa atera berria, *Soul on fire* izenekoak, aurkeztu. Horiekin batera, Bandalismo Gratuito eta Buenavistako faktoriako Señor No donostiarrak izango dira, hemen inguruan jarraitzaile asko dituztenak. Egubakoitzeko kon-

tzerturako iragarritako lau taldeen artean, bat aspimarratzekotan, Eloorrioko Lor taldea: rock melodiko garaikidea oinarri hartuz, popa zein metalarekiko joera tartekatzen dute. Horiekin batera, Jauko Barik, Brigada Criminal eta Ttakunpa, azken horiek dantzarako proposamen garbiarekin.

**ILE**

♀ ♂

**ILE APAINDECIA**

Andra Mari plaza 2 / Tel.: 943 76 81 97

**ELGETA**

**Marijok eta Anak jai zoriontsuak opa dizkizute!**



**Patxi Taberna**

- Bokata goxoak
- Plater konbinatuak
- Espezialitatea: Tripakiak

**Aupa kaskajuok!**

Salbador 3 • Tel.: 943 768 093 • Elgeta

## HERRI BAZKARIA

# Paella erraldoia egingo dute herri bazkarirako

400 lagunendako modukoa izango da paella, eta doan banatuko diete Herriko Plazara joaten direnei

LEIRE KORTABARRIA

Jaietako herri bazkariak ez du hutsik egingo. Baina berrietasuna da paella erraldoia izango dela aurtengo bazkaria. Hurbiltzen direnek doan izango dute platerkada bana.

**L**aurehun lagunendako moduko paella erraldoia egingo dute bihar, zapatua, Herriko Plazan. Doan izango da gerturatzaren diren guztiendako. "Lehenengo aldiz antolatu dugu, proba egiteko. Ea jendea animatzen den!", diote antolatzaileek.

Paella erraldoiak badiu aurrekariak Debagoienan; hain zuzen, Aretxabaletako Andra Mari jaietan badaramatzate zenbait urte horrelako herri bazkaria antolatzen, eta arrakasta handiarekin, gainera; izan ere, urte batean, ozta-ozta iritsi zen paella gerturatu ziren guztiendako. Ea, bada, Elgetan erantzun bera dagoen.

Bazkarian arrosa baka-



Aretxabaletan hainbat urte daramatzate paella erraldoia egiten. Elgetako Udalak espero du hango arrakasta bera izatea herrian.

**Lehen urtez antolatu du Udalak paella erraldoia. Ibarrean aurrekari onak ditu, eta jendea animatuko dela espero dute**

**Herriko Plazan edari postua ipiniko dute Eskola Txikiko gurasoek, ardoa, sagardoa, ura, freskagarriak... saltzen**

rrik zerbitzatuko dute, baina edari postua ipiniko dute Eskola Txikiko Guraso Elkarteak. Bazkalostea herriko koadrilen arteko jokoek giroa dute.

Proposamen gustagarria, hortaz, jaietako zaperakurako.

#### 50 KILO ARROZ

Santanderko Paellas Gigantes Vicente Quintana enpresak egingo du bazkaria. Aretxabaletan bezala. Hona hemen datu batzuk: paellarako 50 kilo arroz, 60 kilo okela, 15 litro olio, bi kilo gatz, sei kilo ilar, hiruma kilo zigala eta langostino... erabiliko dituzte. Beste osagai batzuk izango dira babarrunak, berakatza, tomate, piper berdeak... Ordu-bete besterik ez dute behar izango paella prest edukitzea. 250 kilo pago egurrarekin piztuko dute sua. Paella-ontzia bera ere ez da makala izango: 300 kilo pisatzen du, eta bi metroko diametroa du. Hala ere, enpresa horrek egiten duen txikienetakoa izango da paella hori: 4.000 lagunendakoak ere egiten dituzte.



## BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa  
20690 ELGETA  
Tel.: 943 76 82 21

Ondo pasau danok  
jaixetan!

**emar**  
Caldereria, s.l.l.

Jose Gallego eta semeak

■ Galdaragintza

■ Enpresen mantentze-lanak

ZORIONAK DENOI!

Berraondokua industrialdea 7. 20690 ELGETA.  
semarsll@terra.net  
Tel.: 943 76 83 11. Faxa: 943 76 83 10.

ANTZERKIA

# Espaloian, 'Bazen behin... gutxi gorabehera' antzerkia

**Uztailaren 4a  
22:30ean**

Kanpingags taldearen azken antzezlan. Emanaldirako sarrerak 8 eurotan salgai jarriko dira.

Kanpingags taldeak hainbat ipuin klasikoren umorezko bertsioa eskaintzen du azken antzezlanean

EDU MENDIBIL

Kanpingags antzerki taldearen *Bazen behin... gutxi gorabehera* antzezlanaren ikusteko aukera izango da uztailaren 4an, Espaloia aretoan. Barre egiteko aukera aproposa.

Asier Hormaza, Joseba Apaola eta Kandido Uranga aktore ezagunak ditugu *Bazen behin... gutxi gorabehera* antzezlaneko protagonistak. Tanttaka taldearen *Shakespeare osoa... gutxi gorabehera* eta Kanpingags taldekoek plazaratu zuten *Biblia osoa... gutxi gorabehera* lanen ildotik, oraingoan hainbat ipuin klasikori buelta ematen diote. Asier Hormazak berak azaltzen digunez, "Txanogorritxu, Edurnezuri eta abarren beste ikuspegi bat ematen saiatu gara. Protagonistok Deustuko zubipeko editorialeko saltzaileak gara, eta liburuak saldu nahian, ipuinen antzeppen txikiak egiten ditugu. Barre



*Bazen behin... gutxi gorabehera* antzezlanaren 2003ko irailan estreinatutako zutena.

egiteko moduko antzezlan da, eta hori da gure helburua, ikusleek ondo pasatzea. Espaloia moduko areto bat inauguratzeko antzezlana aproposa da, eta ordu eta erdiz lagunartean

barre egingo dute emanaldira datozenek".

**AURPEGI EZAGUNA**

Kike Diaz de Rada, Nagore Aranburu eta Oscar Terol dira antzezlaren egile-

ak. Zuzendaria, berriz, Patxi Barco dugu. Patxi Barco zuzendutako lehen filmean (*El final de la noche*) Asier Hormaza genuen protagonista. Aktore bizkaitarra aurpegi ezaguna dugu,

batez ere telebistan (*Sorginen laratza*, *Martin telesaila*) egindako lanei esker. Nola bait ospetsu izateak ez du laguntzen ikusleak antzerkira erakartzeko orduan: "Beharbada jen-

deak izaten du grina hori, telebistan edo zinean azaldutako aktoreak zuzenean ikustekoa, baina azken batean kalitatea bilatzen dute ikusleek. Antzezlanak ona ez bada, jai daukagu".

Kanpingags taldearekin ez ezik, Maskarada taldean ere badabil Hormaza. Oraindik *A ze para!* antzezlanaren estreinatutako irailerako, berriz, lan berria aurkeztuko du Kanpingags taldeak: *Por los pelos*. Eta zinean ere proiekturen bat aurrera eramateko zain dago Asier Hormaza.

**FORMULA MAGIKORIK EZ**

Antzerkian arrakasta lortzeko formula magikorik ez duela ezagutzen diosku: "Ez dakit, sekula ez da jakiten nola asmatu. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, esaterako, izugarriko arrakasta izan da eta ustez landuagoak ziren beste lan askok ez dute lortu ikusleekin *konektatzea*. Dena dela, zoritxarrez, antzerkiaren egoera nahiko genukeena baino kaskarragoa da, eta horren ardura nahiko banatuta dago".

ONDO PASAU FERIXA NAGUSIKO JAIXETAN!



**INDUSTRIAS EVE, SA**  
Trokelgintza eta estanzazioa

Pagatza polig. Elgeta. 943 76 80 99

*Juan Mari eta Idurre Arantzeta*  
MASAJISTAK

Ondo pasatu ferixan!

Salbador 28, ELGETA. Tel.: 943 76 80 54 / 76 81 90

# GORA AZOKA NAGUSIXA!



ONDO IBILI JAIETAN!



## ETXEBIZITZAK SALGAI ELGETAN

Hitzordua egiteko deitu 943 79 83 08 telefonora

Informazio zehatzagoa

Domingo Iturbe 4an, Elgetan

JAI ZORIONTSUAK ELGETAR GUZTIOI!